ttipi ttapa

443

2007ko martxoaren 29a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



## Amaia Altube Baztango Korrika arduraduna 03

Martxoaren 22az geroztik Euskal Herriko errepideetan dabil Korrika 15. Eskualdera 30ean ailegatuko da, eta Korrikaren edizio honen berri eman digu Amaiak.



## Malerrekako eskuz binakako txapelketa 27

Martxoaren 10ean jokatu ziren Doneztebeko San Migel pilotalekuan Malerrekako V. eskuz binakako pilota txapelketaren finalak. 12 partida jokatu ziren.



ASTE SANTURAKO LANDETXEAK BETETZEA AURREKUSIA DAGO

# 04 Mendialdeko lasaitasuna eta paisaiaren bila, urtero turista gehiago

natan PRES


Lasaitasuna nahi baduzu, aurki ezazu hemen berean
Nafarroako Erresuma
Nafarroa
Lur Anitza
Nafarroa Landa Turismoa da
www.turismo.navarra.es • tel.: 848 420 420

## DATUAK...

- **Martxoaren 22az geroztik Korrika 15 Euskal Herriko txokoak zeharkatzen ari da. Eskualdera martxoaren 30ean ailegatuko da, Baztanera.**

- **Korrika AEK-k antolatzen du. Amaia Altube da Elizondoko Suinki euskaltegiko (AEK) eta Baztango Korrika arduraduna.**

- **Mezu bakarrarekin 10 egun eta 2.150 kilometro eginen dira. Karrantzan hasi eta igandean akituko da Iruñean. Bildutako dirua Nafarroako gau eskolentzako izanen da.**




ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

**Amaia ALTUBE** *Baztango Korrika arduraduna*

# «27 urteren ondotik aunitz aldatu da Korrika, orain jendeak badaki zer den»

Gurutze PIKABEA

**Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari. Zergatik lelo hori?**
Arrazoi desberdinengatik. Heldu hitzari, garaia delako urtetako menderakuntza, jazarpen eta zigorren ondorioz baztertua izan den euskarak esparrua berreskuratzeko. Eta Korrika 15ek euskararen herria garela aldarrikatu nahi du. Heldu euskarari, Euskal Herrian lanean ari diren eragile guztiei euskararen biziraupena mugatzera eta ukatzera datozen legeak eta jarduerak albo batera utzi eta euskara bizi ahal izateko bideak eraikitzeko. Heldu elkarlanari, belaunaldiz belaunaldi kontra izan diren legeei aurre eginez, euskararen aldeko konpromisoari heldu zioten euskaltzaileei esker dirauelako euskarak. Heldu lekukoari, oraindik asko daukagulako egiteko eta eskuz-esku jarraitu behar dugulako. Heldu herriari, mintzairak nortasunaren adierazgarri direlako eta guk, euskaldunok, euskaraz mintzatuz gure euskaldun izaera adierazten dugulako, eta Euskal Herria adierazten dugulako.

> **«Aurten emakumea omentzea erabaki da, ezinbertzekoa izan delako euskara gorde eta belaunaldiei transmititzeko»**

**Aurten 27 urte, eta 15. Korrika. Hasieratik aunitz aldatuko zen, ez?**
Irakasle zaharrenek kontatzen dutenez aunitz aldatu da. Azken urte hauetan Korrika heldu dela ikustean, segidan hurbiltzen da jendea, kilometroa erostera edo bertzelako laguntza ematera. Hasieran, berriz, jendearen gibeletik joan behar izaten omen zen. Jendeak orain badaki zer den Korrika.

**Korrikak pertsona edo erakunde bat omentzen du beti. Korrika 15ek euskal emakumeak omendu ditu...**
Lehenago pertsona ospetsuak omendu izan dira, eta beti gizonezkoak. Baina aspaldi emakumeren bat omentzeko beharra ikusten zen, eta orokorrean omentzea erabaki da. Emakumea ezinbertzekoa izan baita euskara gorde eta euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzerakoan.

**Karrantzan hasi eta Iruñean akautu. Korrika 13 ere han akitu zen. Orduan Nafarroako Gobernuaren «oztopoekin» egin zuen topo…**
Istiluak egon ziren eta espero dugu aurten ez horrelakorik gertatzea. Kontua da baimena falta dela, eta gauza ez dagoela batere finkatua.

**Eskualdera, martxoaren 30ean ailegatuko da. Arratsaldean du hitzordua Baztanen.**
Baztanen kasuan Artesiaga aldetik hartuko dugu lekukoa, eta Izpegiraino eramanen dugu. Baztanen 32 kilometro saldu dira eta eguerdi aldera ailegatuko da honat. 13:15 aldera hartu eta 17:10ean utziko dugu. Hagitz ordutegi ona da.

**Laguntza hagitz garrantzitsua da...**
Bai, eta Korrika akitu arte eman ahal izanen da laguntza. Korrika Laguntzaile eginez… Aipatu, korrika prestatzen ere laguntza ematen ahal dela, edota azken egunean lan egiteko. Iruñean akitzen denez, Nafarroak azken eguna Nafarroako jendearekin prestatzeko ardura hartua du, eta bakarrik egiten saiatuko gara. Hartara, Baztandik eta ingurutik jendea behar da laguntzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA
**Sarako lezeetan bisita gidatuak soinu eta irudi ikuskizunekin egiten dira, lau hizkuntzetan, euskara barne.**

BORTZIRIAK, BAZTAN, XARETA, LEITZALDEA, MALERREKA…

# Aste Santua ailegatzearekin batera bisitari aunitz etorriko da zonaldera

**Aste Santua gain-gainean dugu. Jendea planak egiten hasia da, norat joan, zer egin, zer bisitatu… Garai batean jendeak ez zuen bidaiatzera ateratzeko ohiturarik, baina gauzak aldatu egin dira. Nafarroako mendialdeak ere jende andana erakartzen du, Euskal Herrikoa zein kanpokoa. Eskualdean Aste Santua nolakoa heldu den eta azken urteetako turismoaren bilakaeraren berri izateko, inguruko leku bisitatuenetara jo dugu.**

**ttipi-ttapa**

Kostaldeko herrietan izaten den jendetzatik urruti, lasaitasuna bilatzen dute bidaiariek gure inguruan. Orain 15 bat urte inork guttik pentsatuko zuen landetxeek gaur duten harrera ona izanen zutenik gure eskualdean. 1996an, adibidez, Sara, Senpere, Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Urdazubi, Zugarramurdi, Leitza eta Goizuetako landetxe guztiak kontatuta 331 zeuden. 2005ean 83 gehiago, 414.

Aurten, Aste Santuaren atarian gauden honetan, dagoeneko gehienak beteak dira. Okupazioa hagitz altua da. Udan, Aste Santuan eta urteko bertze zenbait kasutan etxeen okupazioa altua delako erronka nagusia: *«hori urte osora zabaltzea»*. Halaxe erraten dute landetxeetan.

Landetxeak adina ez, baina badira egonaldiak egiteko bertze aukerak ere eskualdean. 17 hotel , 3 kanpaleku eta 7 aterpetxe.

### Zer ikusi

Bidaiari kopuruaren gorakada toki guztietan nabaritu da. Bada zer ikusi gure inguruan: museoak, lezeak, Larrungo Tren Ttikia, urtegiak, natur parkea eta orohar herriak eta hainbat eraikin historiko. Txoko aunitz, gustuen arabera batekin edo bertzearekin gozatzeko. Orokorrean, azken aldian goiti egin du bisitari kopuruak, baina dudarik gabe **Larrungo Tren Ttikia** da eskualdean bisitari gehien hartzen dituena: 2004an eta 2005ean 359.000 lagun garraiatu zituen; 2006an 363.000 lagun.

Inguru horretara hurbiltzen diren bi-

sitariek leizeak ikusteko ere aprobetxatzen dute: **Sara, Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeak**. Itxuragatik eta aspaldiko kontuengatik erakargarriak jendearentzat. Sarako leizeek 2004an 100.430 bisitari hartu zituzten, urtetik urtera goiti egin duen kopurua: 2005ean 105.474 eta 2006an 110.600.

**Leurtzako urtegiak** ere bisitatuak dira. Mikel Albisuk azaldu digunez, *«bisitari kopuruak nabarmen egin du goiti»* 2005arekin konparatuz. Eta hala erakusten dute hauek: 7.000-10.000 gehiago 2006an. Leurtzaren kasuan urteko 184 egunetako datuak biltzen dira, martxotik urria bitartekoak, horregatik, urte osoan kopuruak goiti eginen luke, baina badira bertze batzuk maiztasunez joaten direnak eta horiek behin baino gehiagotan kontatuak izan daitezke. Bertze kasu aunitzetan bezala, abuztua izaten da jendetsuena, baina hori ere aldatuz doa: 2003an abuztuan pasatu ziren bisitarien %42; 2006an, ordea, %21a. Iazko datuei erreparatuz, uztailak gorakada haundia izan du, *«eguraldi ona egin zuelako»*. Irailean eta urrian ere goiti egin zuen bisitari kopuruak, 2005ean 5.872 bisitari, 2006an 10.539 (kontuan hartu behar da, 2005ean baino 31 egun gehiagotako datuak zenbatu zirela 2006an).

Bertzelako bisitak ere maite ditu jendeak. Hori da, adibidez, **Arizkungo Santxotena parke eskultorikoa**ren kasua. Bertatik adierazi digutenez, *«aitzineko urteko zifrak bikoiztu egin ditugu»*. **Zubietako errota-ekomuseoan**, aitzineko urteetako datuei begira, osotara beheiti egin du bisitari kopuruak. Halere, alde nabarmena dago hilabete batetik bertzera. Maiatza eta apirila dira hilabeterik jendetsuenak. Joan den urteko abuztuan 851 lagun sartu ziren, urtarrilean 87.

Leitzaldean lekurik bisitatuena **Plazaolako Natur Bidea** izaten da, garai bateko Plazaola trenak Iruñea eta Donostia lotzen zituen bidea. Berriki ireki dituzten **Mendukiloko kobazuloek** ere badute arrakasta.

## Turismo bulegoak lanez lepo

Lasaitasuna eta paisaia ederra. Arrazoi hori tarteko, gora egin du bisitari kopuruak. **Bertizko Natur Parkeko** turismo bulegoaren kasuan, Nafarroako Gobernuak utzitako datuen arabera, 2005ean 30.033 lagun pasatu ziren; 2006an 26.569. 2005ean kopuru horretatik %93,95 estatu espainiarretik etorriak ziren; gainerako %6,05 kanpotik. 2006an, %94,92 estatu espainiarretik; %5,06 kanpotik. Dena den, kontuan hartu behar da turismo bulegoetara bisitari guztien %40 soilik hurbiltzen dela.

Gero eta atzerritar gehiago etortzen da gure ingurura, baina kanpotik etor-tzen diren gehienak katalanak dira, ondotik madrildarrak.

**Bertizko turismo bulegotik**, errateko, Hego Euskal Herritik etorritakoak %45 inguru ziren 2005ean, eta joan den urtean gehiago, ia %50. Gainerakoak, ordea, kanpokoak. 2005ean, kanpotik etorritakoen %15,31a kataluniarrak ziren, 2006an %17,46. Segidan madrildarrak daude: 2005ean %9,71 ziren eta iaz %12,18.

**Sarako turismo bulegotik**, 21.676 pertsona pasatu ziren joan den urtean, 2005ean baino gehiago (20.975 duela bi urte). Adierazgarriena, ekaina eta iraila artean pasatzen dela batez ere jendea: 14.122 iaz, eta 14.934 2005ean.

Lekunberriko **Plazaola turismo bulegoan** ere igoera nabaritu dute. 2003an 12.228 bisitari izan zituzten eta geroztik etengabe egin du goiti, iaz, 17.729 lagun pasatu baitziren. Horietatik gehienak, Hego Euskal Herritik eta Kataluniatik etorriak. 2006an 11.354 ziren Hego Euskal Herrikoak, 2005ean 10.415.Katalanak 2006an 2.282 ziren eta orain bi urte 2.293. Atzerriko jende andana ere hurbiltzen da, portzentaiek igoera urtetik urtera ttikiagoa dela erakutsi arren, kopurua goiti doa. 2003an %7,16eko igoera izan zuen atzerritar kopuruak, 2006an, ordea, %4,76koa. Horietatik gehienak frantsesak dira.

### Ikaburuko lezeak (Urdazubi)



1808.urte inguruan aurkitu ziren, itxuraz, artzain batek. Urtxuma errekak zeharkatzen du barnetik, eta estalaktita eta estalagmitak ikusgarriak ditu.

### Sorginen Lezeak (Zugarramurdi)



Euskal Herriko sorginen kondairak eta Akelarreek egin dituzte ezagun. Infernuko errekak erditik gurutzatzen du Leze Handia. Eta honen barrenean dago Akelarre lezea.

**Bisitari kopurua 2006an: 73.000**

### Sarako lezeak



Hiru lezeak elkarrekin lotuz Pottoken ibilbidea dago markatua. Barandiaranek egin zituen arkeologia ikerketetan gizakiek erabilitako tresnak aurkitu zituen. Bisitak ikusentzunezkoekin.

**Bisitari kopurua 2006an: 110.600**

### Gorrienea etxe-museoa (Arizkun)



**2005ean: 105.474**

Agoteen eguneroko bizimoduari buruzko bildumaz gain, mitologia, Euskal Herriko historia eta pertsonaietan oinarritutako eskulturak daude bertan.

### Bertizko Natur Parkea



1898an Pedro Zigak erosi eta lorategi botanikoa sortu zuen, mundu osoko espezie exotikoekin hornituz. Eta ezin atzendu Aizkolegiko Jauregia. Hortik, kostaldeko eta Pirinio aldeko bista ederrak gozatzen dira.

### Zubietako errota ekomuseoa



**Bisitari kopurua**
**2006an: 75.076**

1998an XVIII. mendeko errota zaharberritu zutenetik lanean ari da, arto ehotzearen prozesua ikusteko aukera ematen du.

### Leurtzako urtegiak



**Bisitari kopurua**
**2006an: 4.673**
**2005ean: 5.012**

Leurtzako urtegiak Pago-oihan berdez inguratua dago Leurtza, naturaz gozatzeko leku ezin hobea.

**Bisitari kopurua 2006an: 35.000 (martxotik urria bitarteko datuak)**
**2005ean:25.000**

### Larrungo Trena



Lapurdiko mendirik garaienean, San Inazio Lepotik abiatuz. 1923az geroztik dabilen tren ttikia.

**Bisitari kopurua 2006an: 363.000**
**2005ean: 359.000**

### Plazaolako Natur Bidea



Antzinako Plazaola trenak Iruña eta Donostia lotzen zituen. Hasieran meatzaria zen. 1914 aldera bidaiari-trena eta orain natur bidea.

**Plazaolako Turismo Bulegoan bisitari kopurua 2006an: 17.729**
**2005ean: 15.925**



**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**TIRADA:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 32 € |
| Espainia | 32 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika | 110 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 26 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Erdizaga

Orain lau urteko hauteskundeetako programan, bai UPNk eta bai EAk ekonomikoki eta ingurugiro sailarekiko plateatutakoa hau zen; Baztanen abeltzaintza, nekazal turismoa eta industria garbiak bulkatzea, bertze batzuen artean. Erdizko harrobiaren proiektua, industria garbien barnean sartzen ote da? Nekazal turismoa bulkatuko ote?

Nafarroako Gobernuak 2005.urtean ZBA (Zainketa Bereziko Eremua) izendatu zuen Alduide mendia, Magna SAren harrobi proposamena honen ondorioz ezeztatua gelditzen delarik; bertako baliabideak itzulezinak izango liratekeelako, ingurugiroarekiko talka izugarria izango litzatekeelako eta harrobia egitea ZBAren ezabapena izanen zelako.

Aipatzekoa da 1988an Okoro mendiko haize erroten proiektuak Nafarroako Gobernuaren ezetza izan zuela ingurugiroarekiko kaltea argudiatuz, eta orain harrobi erraldoi baten planteamendua?

Magna SAk 35 lanpostu sortuko dituen aitzakiarekin erosi nahi gaitu, hori hala balitz ere, Erdizagara lanera gan edo Zubirira edo Iruñera gain, ez al da berdin, azken honen errepidea hobea izanik? Eta honekin batera zenbat nekazari kaltetu? Lanpostu batzuen sormena bertze batzuek kitatzearen truke, nekazalgoak ez al du jada nahiko oztopo?

Badakigu Baztanen harrobiak izan eta badirela, baina... Badakizu Erdizagan egin nahi duten harrobia Almandozkoa baino 10-12 aldiz handiagoa izanen zela eta aldi berean Euskal Herriko handiena izango litzatekeela?

Horrenbertzeko interesa duen paraje babestu honetan harrobia egitea zinez kaltegarria da: lehentasunezko habitata suntsituko luke, hauts kutsagarria hedatu, bertako amuarrainen erreserba genetikoa hondatu, landaretza eta gaina desagertarazi. Horri gehitu beharko litzaioke harrobirainoko bidea moldatzea edo berria egiteak ekarriko lukeen hondamena...

Toki paregabe hau betirako suntsitzeko arrisku latza dago gutxi batzuk aberasteko guztiona den ondarearekin.

**Nagore Intxausti**
**Erdiz Bizirik Taldea**

## De Juana; borrokaren garaipena!

Azkenean Euskal Herrian da Iñaki de Juana, 115 egun gose greban egon ondotik, hasia du jada luzea eta gogorra izanen den errekuperazioa.

Hilabeteetako borroka luzeak ekarri du De Juana Donostiako erietxera, Iñakik berak bizia arriskuan jarriz aitzinera eraman duen borrokak, Euskal Herriko auzo eta herrietan egin dugun borrokak. Horregatik jeitsi diote kartzela zigorra, 93 urteko eskaeratik hiru urteko zigorrera, eta ondotik Donostiako erietxera ekarri.

Borroka da bidea, argi gelditu den bezala, Euskal Herria askatasun egarriz dago, horrek ematen dio aitzinera segitzeko indarra, garaipena lortzeko borrokatu behar. Iñaki Donostian dago; herriaren garaipen bat; baina gaixotasun larridun presoak kartzeletan jarraitzen dute; hiru laurdenak beteak dituztenak kartzeletan daude oraindik; dispertsioa indarrean dago... Orain Iñakiren bidetik, preso eta iheslari guztiak etxeratuko ditugu.

Borrokaz dena da posible, herriaren indarrez, dena lor daiteke. Ez etsi, kalean ikusiko dugu elkar, gurea izanen da garaipena, gaurko borroka biharko garaipena. Presoen kolektiboak otsailean egin duen borrokaldiaren zentzua berreskuratuz, autodeterminazioa eta amnistia Euskal Herriarentzat!!!!

**Asier Etxarte**
**Lesakako Askatasunaren izenean**

**OHARRA**
Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.









## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •




DIARIO DE NOTICIAS, 2007-03-18

*«Betidanik entzun izan diet artzainei ardiak kanalean erortzen zitzaizkiela. Gu bizi garen Urumeako goiko arroan, Goizuetan, Eratsun, Ezkurra, Leitza inguruan, ubide pila bat dauzkagu eta aspaldikoak dira. Ohartu ginen batzuetan ez dela ezer gertatzen eta beste batzuetan animalia asko erortzen direla (...) Astero kanaletan gertatzen zena kontrolatzen hasi eta 200 ardi eta arkumetik gora aurkitu genituen hilda. Zona beltzak detektatu genituen».*

**Migel Mari ELOSEGI**
Leitzako basozain eta ikerlaria
D. Noticias 2007-03-18

*«Binakako txapelketan, aurten bi partidutara bakarrik joateko aukera izan dut, Iruña eta Tolosara, batez ere telebistan ikusi dut. Ez dut bat bera ere galdu. Aitzineko urteetako txapelketaren bide beretik joan da, partidu on eta txarrekin... denetarik. Aurten faboritoak goiz joan dira etxera. Irujo eta Aimar kanpoan gelditu dira (...). Bi horiek finala jokatuko balute ikusmin haundiagoa sortuko litzateke, baina finala beti finala da eta pilotalekua beti betetzen da».*

**Antton MAIZ**
Arantzako pilotari ohia
D. Navarra 2007-03-19

## • 11 GALDERA LABUR •

**Joan den urtean 18 urtez azpiko Nafarroako Txapelketan irabazle... Nafarroako Txapelketa Nagusiko txapela ere ailegatu daiteke, ez?**
Bai, igual bai.

**18 urteko iturendarra, txapelketa nagusiko aurpegi berria. Nola ikusi duzu zure burua?**
Nahiko nerbiosa, baina gustura egon naiz, errepikatzeko moduan.

**Finalaurrekoetan 18 bertsolari zineten, horietatik 2 emakumezkoak. Nola ikusten dituzu emakumezkoak bertso munduan?**
Ongi, bertsoak ez du sexurik eta gainera orain heldu diren gazte gehienak emakumezkoak dira.

**Noiz kantatu zenuen plazan zure lehen bertsoa?**
2002ko Nafarroako Txapelketa Nagusiko finalean izan zela uste dut, Donezteben. Nik eta bertze neska batek bertsolarien aitzinetik agur bat kantatu genuen.

**Bertsotan aritzeko, tabladua edo mahaingurua nahiago?**
Igual zait, bietan ongi.

**Bertso-eskolako irakaslea ere bazara. Nola ari dira haurrak bertsotan?**
Sunbillan eta Iturenen aritzen naiz, 10tik 14 urte bitartekoekin. Haurrak gustura aritzen dira, hasieran probatzeko hasten dira, eta gero afizioa sortzen da.

**Gustuko duzun bertsolari bat?**
Silveira.

**Bertsotan aritzeko gustuko plaza edo herriren bat?**
Donamaria.

**Zer da errazagoa, bertsolari txapelketarako prestatzea edo ikasketetan azterketa bat prestatzea?**
Txapelketa dudarik gabe, gogo gehiagorekin prestatzen da behinik behin.

**Zein bertze afizio dituzu?**
Pintatzea.

**Bertsolari bezala, amets bat?**
Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nagusia irabaztea.



**Alazne UNTXALO**
*Iturengo bertsolaria*












ESKUALDEA

# Otorduak egiteko dirulaguntzak banatuko dira 3. adinekoentzat

Nafarroako Gobernuak 65.000 euro gastatuko ditu egitasmo horretan

ttipi-ttapa

Etxean otorduak egiteko zailtasunak dituzten hirugarren adinekoentzako dirulaguntzak emateko deialdia aitzinera eramanen du Nafarroako Gobernuak. Erabakia martxoaren 19an onartu zuen gobernuak, eta 65.000 euro erabiliko ditu horretarako.Osasun arrazoiak edo diru arazoak tarteko, etxean behar bezalako otordu bat egin ezin dutenei zuzendua da deialdia, *«bizi kalitate ona izan dezaten»*.

Dirulaguntzak asteko zazpi egunetarako izanen dira. Hala ere, hainbat baldintza jarri dituzte: 65 urte baino gehiago izan beharko dira; 55 urte baino gehiagoko alargun pentsioduna, erretiratutako pentsioduna, elbarritasun pentsioduna edo edozein pentsio jasotzen duten 60 urtetik goitikoa..

Gisa berean, laguntza onartzerakoan pentsioen diru-sarrera ere aintzat hartuko da. Hartara, hilabetean 0 eta 500 euro bitartean jasotzen dutenek 2 euro eta 10 zentimoko laguntza izanen dute otordu bakoitzeko, 500 eta 665 euro arteko pentsioak dituztenek, 60 zentimokoa. 665 euro baino gehiago irabazten dutenek ez dute dirulaguntza jasotzeko aukerarik izanen. Eskaerak egiteko epea laster zabalduko du Nafarroako Gobernuak.




UTZITAKO ARGAZKIA

**Eskualdeko ezker abertzaleak ekitaldi politikoa egin, eta hauteskundeetara aurkezteko asmoa iragarri du**

**Martxoaren 17an Iruritako Damasio Zabaltza kultur gunean ekitaldi politikoa egin zuen eskualdeko ezker abertzaleak. *«Bidean aurkitzen dituen oztopoen gainetik lanean segituko duela»* azaldu zuen, eta *«hurrengo hauteskundeetara aurkezteko asmoa»* duela iragarri. Bere egitasmoak zein izanen diren ere adierazi zuen, eta heldu diren udal-hauteskundeak *«ibilbide berri baten mugarria izan behar dutela»* iritzi. Ekitaldian, Bortziriak, Baztan eta Malerrekako 170 lagun inguru elkartu ziren.**

FLASH

### Legasan eta Lesakan eremu industrialak egiteko mozioak onartu ditu Parlamentuak

Malerrekan eta Bortzirietan lur eremu industrialak prestatzeko mozioak onartu zituen Nafarroako Parlamentuak aho batez martxoaren 14an. Bi mozioak Helena Santesteban Berako alkateak egindakoak ziren, *«zonaldeko garapen ekonomiko eta sozialarentzat beharrezkoak»* direla iritzita. Legasan 200.000 metro koadroko eremuari erabilpena eman nahi zaio, *Aceralia* enpresarena, baina erabiltzen ez dena. Hala, lur horiek industriagune bilakatzeko behar diren neurriak hartzeko eskatu zion Parlamentuak Nafarroako Gobernuari. Gisa berean, Lesakan *Arcelor* enpresarenak diren Luberrondoko lurrak ere ez dira erabiltzen eta industriarako baliagarri izan daitezen jabetza publikoko lurrak izatea exijitu zuten. Halere, horretarako Lesakako saihesbidearen bigarren faseak akitua izan beharko luke; eta hori dela eta, *«saihesbidea bukatzeko proiektuari lehentasuna emateko»* exijitu zuten.









BERA

# Uxaneren egoitza berria eta Maddi egotetxea inauguratu dituzte

## Ezintasun psikikoa duten 16 lagunentzako tokia dauka erresidentziak

**Amaia eta Ainhoa**

Martxoaren 23an inauguratu ziren Maddi egotetxea eta Uxaneren egoitza berria. Ekitaldian egon ziren Aspace-Nafarroa, Uxane eta Bortzirietako udaletako ordezkariak, Maria Isabel Malo eta Nafarroako Gobernuko Ongizate Sailburua. 17:00etan Kultur Etxean Musika Eskolako folk eta solfeoko taldeek, teklistak, Uxane antzerki taldeak eta Ana, Leire eta Uxaneko lagunek hainbat ikuskizun eskaini zituzten. Ondotik, Maddi eta Uxaneko egoitzan Gure Txokoako dantzariek aurreskua dantzatu zuten musika eskolako txistulariek lagunduta. Berako Abesbatza ere han izan zen eta egoitza bedeinkatu ondotik merienda ederra egin zuten. Aspaceren baitan, Uxane Elkarteak eskualdean 30 urte bete ditu lanean eta eraikin berria estreinatuz ospatuko dute. Egoitzaren lehenbiziko solairuan Uxanekoentzako laneko ikastegia egonen da, orain arte musika eskolaren beheko solairuan zegoena, eta bigarren eta hirugarren solairuetan erresidentzia. Uxane Zentro berria dagoeneko martxan da eta Maddi egotetxea apiriletik aurrera ere irekia izanen da. Ezintasun psikikoa duten 16 lagunentzako tokia dauka erresidentziak eta dagoeneko hamabik eman dute izena, Bortzirietakoak denak. Aspace Fundazioak bertan lan egiteko sei langile kontratatuko ditu, horietako bortzek arreta zuzena eskainiko diete bertan biziko direnei eta bertzea garbiketa lanetaz arduratuko da. Oraindik lau lagunentzako tokia gelditzen direnez, interesatuek Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako arduradunarekin harremanetan jar daitezke.



ARGAZKIA: AMAIA ODRIOZOLA

**Maddi egotetxea apirilean irekiko dute.**

### Apiriletik aitzinera aerobika

Bigarren hiruhilekoan, monitore faltagatik bertan behera gelditu ondotik, hirugarren hiruhilekoan, berriz aerobika emanen da monitore berri batekin. Apirilaren 3an hasiko da, eta martxoaren 29a baino lehen izena eman behar da kiroldegian. Lehengo talde eta ordutegiak mantenduko dira, eta lehendik zeudenek lehentasuna izanen dute, jende berria hartu arren. Ordutegiak hauek izanen dira: astearte eta ortzegunetan: 17:30-18:30 (aerobik I); 18:30-19:30 (mantenimendu gimnasia), 19:30-20:30 (aerobik II) eta 20:30-21:30 (aerobik III). Kiroldegiko bertze aktibitateetan ere izena eman daiteke, plazarik egonez gero.

### Hitzaldia

Bortzirietako Korrika Batzordeak eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta Pisu gabezia solasaldia izanen da martxoaren 30ean. Kultur Etxean izanen da Patxi Usabiaga 19:30etik aurrera. Korrika Kulturalekoa da ekitaldi hau.

### Bai Euskarari Ziurtagiria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta Bai Euskarari Ziurtagiria banatzeko ekitaldia eginen da martxoaren 31n. Kultur Etxean izanen da 20:00etan.






LESAKA

# Etorkinak biltzeko 'Muga Gainetik' Topaketa eginen da apirilaren 1ean

Apirilaren 15erako, berriz, Erdi Aroko IV. Azoka prestatu da

**Aitor AROTZENA**

Lehengo eta oraingo etorkinak biltzeko eta kultura ezagutzeko asmoarekin Muga Gainetik Topaketa eginen da igande honetan, apirilaren 1ean, 12:00etatik 19:00etara. Lesakako Ongizate Batzordeak antolatutako ekitaldi honetan hegoamerikako etorkinez gain, Galizakoek, Extremadurakoak edo Andaluziakoek hartuko dute parte. Plazako aparkalekuan muntatuko den karpan, herrialde bakoitzeko txoko bat jarriko da, beraien gastronomia dastatu eta musika aditzeko, bertzeak bertze. Euskal Herriak ere parte hartuko du, eta sagardo kupelaz gain, zikiroa ere izanen da. Tantirumairu dantza taldeko dantzariaren aurreskuarekin irekiko da ekitaldia.



ARGAZKIA: AITOR A.

*Emakumeak kirolari*

**Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna zela eta, Bortzirietako Berdintasun Arloak antolatutako ekitaldi ezberdinen artean, herri kirol saio ikusgarria izan zen plazan martxoaren 11n. Bortzirietako emakume kirolariek sokatira eta proba konbinatu saioa eskaini zuten.**

### Erdi Aroko IV. Azoka apirilaren 15ean

Herriko besta egitarauan leku egin duen Erdi Aroko Azokak laugarren edizioa beteko du apirilaren 15ean. Ohiko ekitaldiez gainera, aurten karrika animazio gehiago izanen da. Plazako aparkalekuan Erdi Aroko kanpamendua jarriko da eta haurren jokuak Zabaleta dorre inguruan eginen dira. Ipuin kontalariak edo ezpata torneoa izanen dira aurtengo bertze berrikuntzak, 40 artisautza postuen artean. 19:00etan Muxiko dantzaldia izanen da Plaza Zaharrean.

### Herri Olinpiadak

Erdi Aroko Azokaren bezperan, apirilaren 14an, Herri Olinpiadak antolatu dituzte Lesakako Gaztik. Aurten, partehartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu, bazkaria barne baitago.

### Txiki-Park eta bisita gidatuak

Aste Santu inguruan, bisitatzen gaituztenek eta bertako haur eta helduek izanen dute zer egin. Ttikienentzat Txiki-Park izanen da goiko frontoian apirilaren 4tik 13ra, 16:30etik 20:30era. Helduek, bisita gidatuak izanen dituzte 5tik 13ra.

### Irulegi botatzen hasiko dira

Plaza Zaharra 2 eta 3an dagoen Irulegi etxea bota behar dela eta, udalak Plaza Zaharra 4 eta Arretxea 10aren arteko zatia moztea nahitaezkotzat jo du, zehaztugabeko epe baterako. Hortaz, bando baten bidez, bai Irain eskolara edo Tantirumairu ikastolara joateko, aparkamendu publikoetan kotxea utzi eta oinez joateko eskaria egin du Udalak.



PERTSONAIA

**Belen MUTUBERRIA**

## Kultur eta turismo dinamizatzailea

Martxoaren 1ean hasi eta hamar hilabeterako, kultur eta turismo teknikaria kontratatu du Udalak. Aukeraketa prozesua otsailean egin zen, eta Belen Mutuberria Bergara herritarra hautatu zuten. Bertze hiru lagun aurkeztu ziren, baina puntuazio altuena berak lortu zuen. Urtea akautu arte, lanaldi erdia kultur arloan emanen du eta bertze erdia turismo arloan. Teknikari berriak aipatutakoaren arabera, herriko kultur egitaraua nahiko aberatsa iruditzen zaio eta momentuz, bertze gauza batzuk antolatu baino lehen gaiari neurria hartu nahi dio. Halere, hasi eta berehala ez ohiko ekitaldi bat antolatzen hasi da, apirilaren 1eko Muga Gainetik Topaketa, hain zuzen. Turismo arloan ere aritu beharko da eta berak dioenez, lehenik herriko baliabideak antolatu eta ezagutarazi behar dira. Aipatzekoa da Belen Mutuberria hiru urtez Bertizko Partzuergo Turistikoan gerente lana egin zuela. Kultur teknikaria izanda, kultur etxea izanen litzateke hurrengoa!









## ETXALAR

# Larunbat arrats honetan pasatuko da Korrika Etxalartik

Igandean Usategietako Auto Igoera eginen da, aurten 10. aldiz



ARTXIBOKOA

**Aitzineko aldian etxalartar andana bildu zen Korrikan parte hartzeko.**

**Joseba eta Nerea**

Martxoaren 22an abiatu zen Korrikaren XV. edizioa Karrantzatik eta gure eskualdetik martxoaren 31 eta apirilaren 1ean pasatuko da Iruñerako bidean. Etxalartarrek bi kilometro erosi dituzte, bat Udalak, eta bertzea Altxata Kultur Elkarteak. Kilometro hauek Etxalarlatsa inguruan daude eta bertatik martxoaren 31n pasatuko da gauerdi aldean. Korrika batzordetik adierazi digutenez, oraindik ordutegia ez dago guztiz zehaztua, baina eguna hurbildu ahala kartelak paratuko dira.

Landagain eskolak ere Korrika honetan parte hartuko du Korrika Ttikia eginez. Martxoaren 30ean, ortzirala, arratsaldean izanen da, 3ak aldean. Lerro hauen bidez herritar guztioi gonbidapena lutzatzen dizuegu euskararen alde metro batzuk laster egitera.

### Auto Igoera

10. urtez segidan, autozaleen topaleku izanen da Etxalar. Igande honetan, apirilak 1, motor soinuek hartuko dituzte Usategietako errepide bazterrak eta goizean goizetik auto-erakustaldi ederrak ikusi ahal izanen dira. Errepidea goizeko 9:30ean itxiko da eta ordu bat beranduago eginen da probako lehen itzulia. Ondotik, bertze bi igoera puntuagarri etorriko dira. Duela urte batzuk herriko auto-gidariek hagitz saio txukuna egiten zuten, Jon Iparragirrek, Joseba Beolak eta Joseba Genuak, bertzeak bertze. Baina badira urte batzuk ez dutela parte hartzen eta aurten ere ez dirudi parte hartuko dutenik. Zernahi gisaz, giro onak eta auto-igoera apartek ez dute hutsik eginen, eta jendetza handia espero da herrian.

### Hainbat sute Azkua magalean

Martxoaren 15ean eta 18an baimenik gabeko hainbat su piztu zituzten Azkua magalean. Suak bortz toki desberdinetan piztu zituzten lehenbiziko egunean, eta bertze bi lekutan bigarrenean. Suhiltzaileak bertara hurbildu behar izan ziren, haizearen eraginez sua gehiago zabaldu ez zedin. Udaletik haserre handia agertu digute baimenik gabeko sute hauek direla eta. Patxiku Irisarri alkateak erran digunez *«ez da batere konplikatua baimena eskatzea eta behin hori lortuta, suteak modu kontrolatuan egin daitezke. Egun hauetako su hauek lagun baten edo batzuren gaiztakeria izan dira, herriko mendiei kalte ikaragarria egiten diena. Horrelako gauzekin ezin daiteke bromatan ibili, hagitz kontu serioa da»*.

### Jende franko Kultur Etxeko proiekzioetan

Martxoa haur eta gazteei eskainitako ekitaldiz betea burutzen ari zaigu. Kultur Etxeak film eta marrazki bizidunen emanaldiak antolatu ditu ortziral guztietarako: «Asterix eta Zesarren ustekabea», «Balto, ordezko hegoak» eta «Aupa Etxebeste!» marrazki bizidun eta filmak eskaini dituzte orain arte, eta ortziral honetarako «Pippi Galtzaluze» dago programatuta. 16:30ean hasiko da filma, doan izanen da, eta haurrei zuzendua bada ere, helduak ere hurbil daitezke.

Orain arteko emanaldietan 25 bat lagun bildu dira eta Jabier Iriarte Kultur Etxeko teknikaria hagitz kontent dago jendearen harrera onarekin.












ARANTZA

# Korrika Ttikia larunbat arratsaldean eginen da herri inguruan

## Herri eskolak eta Ekaitza Elkarteak batera prestatu dute ekimena

**Nerea ALTZURI**

Martxoaren 22an Karrantzatik abiatu zen Korrika. Herriz-herri dabil eta ortziral eta larunbat honetan eskualdean barrena eskuz-esku lekukoa ibiliko da. Zehazki, Bortzirietan larunbat arratsean edo igande goizaldean ibiliko da. Heldu da gure ingurura ere eta gogor helduko diogu testigu edo lekukoari. Larunbat arratsaldean, beroketa gisa Korrika Ttikia antolatu dute Eskolako lagunek eta Ekaitza Elkarteak. Herri inguruan lasterka ariko dira eta 16:30ean hitzordua paratu dute. Plazatik abiatu eta Larreta, Goienburu eta Bideberrin barna ibili ondotik herriko plazara bueltatuko da. Korrika Ttikian eskolak euskalduntzearen aldeko aldarrikapena ere eginen da: *«Irri eta solas, Arantzan euskaraz»* lelopean. Ondotik, merienda-afaria eginen da Ekaitza Elkartean, eta handik Korrika nagusirako bidea hartuko du jendeak. Korrikaren harira, ortziralean, mus txapelketa ere eginen da Ekaitza Elkartean. Guziok parte hartzen ahal dugu!

### Finalerako txartelik gabe

Nafarroako Herri Kirol Jolasen edizio berri bat iragan da eta herriko gaztetxoek aurtengoan finaleko saioan ez dute parte hartu. Izan ere, lau jardunaldi burutu ostean, kadete eta haur mailan proba konbinatuan aritu diren bi taldeek ez dute finaleko txartelik lortu. Aitzineko alean erran bezala, ez zuten nahi bezalako hasiera izan eta jardunaldiz-jardunaldi emaitza hobeak ekarri badituzte ere, aurtengoan ezin urteroko urratsa aitzinera eraman.

Nolanahi ere, lau jardunaldietako informazioa jaso dugu eta emaitzei erreparatuta, haur mailako taldeak adibidez, denborak hobetu ditu. Izan ere, lehen jardunaldian 11 minutu eta 40 segunduan akautu zuten saioa; Igantziko laugarren eta azken jardunaldian, ordea, 10 minutu eta 47 segunduko denbora egin zuten. Hala ere, finalerako txartela lau taldek eskuratu dute eta gainerako zortziek ere indartsu daudela erakutsi dute eta aranztarrei sailkapenean hondarrean egotea tokatu zaie.

Kadeteen taldeak, gora-beherak izan ditu jardunaldiz-jardunaldi baina finaleko txartela lortzeko aukera izan du. Baina, laugarren jardunaldian ez zitzaizkien gauzak nahi bezala atera. Ondorioz, finaleko aukeratik kanpo geratu zen talde hau ere bertze laurak sailkatuz.

Berriz ere herriko ordezkaritzak parte hartu du txapelketan. Entrenatzaileen eta gaztetxoen gogoak ere aunitz balio du! Hurrengoan gehiago eta hobekiago.




ARGAZKIA: MIKEL LARRETXEA

### *Giro ezin hobea Mozorro Bestan*

**Martxoaren 10ean Mozorro Besta egin zen eta ezin balorazio txarrik egin. Ilunabarrean aizkora apustu bikaina eskaini zuten herriko lau gaztek. Xabi Agesta eta Xabi Larretxea, Julio eta Dani Lukanbio anaien aurka aritu ziren, eta denbora guzian aitzinetik joan ez baziren ere, lehenbizikoek irabazi zuten. Frontoiko saioaren ondotik, afaltzeko bidea hartu zuen jendeak. 80 bat afaltiar bildu ziren Aterpen, eta Irazu eta Maia bertsolarien konpainian giro ona sortu zen. Ondotik, Jalisko Bandek alaitu zituen plaza iskinak. Besta ordu ttikiak arte luzatu zen aunitzentzat. Argazkian kirol saioko protagonistak ageri da, euren prestatzaileak ondoan dituztela.**









DONEZTEBE

# Akitu da Gazte Burrunba kultur elkarteak antolatutako II. mus txapelketa

Inoiz baino jende gehiago animatu zen Xabierrera eginiko ateraldian

**ttipi-ttapa**

Gazte Burrunbak antolatuta martxoaren 17an egin zen II. mus txapelketako azken saioa Kasinoan. Bukaerako jardunaldia egin aitzinetik irabazlea nor izanen zen jakin arren, jende andana aritu zen musean. Irabazlea Fermin Jorajuria izan zen, azken saioa baino lehenagotik egin ziren 16 alditan ia hutsik egin ez zuen herritarra. Eta saria bidai eder bat.

Bigarren postua, berriz, Lander eta Leirerentzat izan zen, iaz ere lehenbiziko postuetan gelditu zen bikotearentzat. Mus partiden aitzakiarekin, jendea bildu zen Kasinora eta giro ona sortu zen. Arratsaldeari segida emateko merienda-afaria egin zuten han elkartutakoek.

### *Inoiz baino jende gehiago Xabierrera eginiko ateraldian*

Erreka kirol elkarteak martxoaren 10ean antolatu zuen ibilaldira inoiz baino jende gehiago animatu zen aurten: 75 lagun inguru. Jendearen harrera ona ikusita bi autobus paratu behar izan zituzten antolatzaileek.

Batzuk Noainen hasi zuten ibilaldia eta 47 kilometro egin zituzten oinez Xabierrera ailegatzeko. Gainerakoak Monrealetik abiatu ziren. 18:00ak aldera autobusak Xabierren bertan hartu zituen bidaiariak eta herrira itzuli ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Errekako judokak azpitxapeldun Nafarroako Txapelketan*

**Kirol Jokuen barrenean, Nafarroako Judo Txapelketaren finalak jokatu ziren Tuteran. Errekako bi judokek hartu zuten parte, eta bata zein bertzea azpitxapeldun gelditu ziren: Andoni Irazoki bigarren postuan gelditu zen, alebin mailan, mutiletan 52 kiloz beitikoetan. Ana Mindegia, berriz, alebin mailan baina nesketan, 47 kiloz beitikoetan.**



## SUNBILLA

# Ulibeltzak elkarteko zuzendaritza batzordea martxoaren 31n berrituko da

Bazkideei batzarrera joateko deia egin zaie

**Jaione OTXANDORENA**

Datorren martxoaren 31n berrituko da Ulibeltzak elkarteko zuzendaritza batzordea. Bilera 19:00etan hasiko da eta hautatuko den zuzendaritza berriak bi urteko agintaldia izanen du bere esku.

Oraingo zuzendaritza batzordekoek aditzera eman dutenez, prozesu honetan bazkideen partehartzea eskertuko da.



ARTXIBOKOA

**Ulibeltzak elkarteak 25 urte bete zituenean, bazkideei ateratako argazkia.**

### *Badator Korrika*

Larunbat honetan goizaldean, 01:00etan, pasatuko da Korrika Sunbillako errepide berritik. Primeneko borda parean hasi eta Ibarbururainoko tartean dira Antrotokiko gazteek, Ulibeltzak elkarteak eta Udalak erositako bi kilometroak.

### *Mendi ateraldia*

Martxoaren 17an herriko haurrek mendi ateraldia egin zuten Urkiaga-Abi eta Sorogainera. Irteera hauetan 14 haurrek izena emana bazuten ere, azken ateraldian elurretara joateko bertze bidaia zegoela-eta, sei haur joan ziren. Nafarroa guztian antolatutako mendi ateraldi horietatik azkena falta da: Sorogaindik Orreagara joanen dena, maiatzaren 12an.

## ITUREN

# Aitziber Mindegia arraioztarrak beteko du administrari-laguntzaile postua

**Arkaitz MINDEGIA**

Zubieta eta Iturengo Udalen artean administrari-laguntzailea kontratatu dute, Aitziber Mindegia arraioztarra. Amaia Otxandorenaren amatasun-baja beteko du. Kontratuaren iraupena, hasiera batean, 17 astekoa izanen da. Lanaldi erdikoa, lau ordu egunean, 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera. Zubieta eta Iturengo udaletxeetan eginen du lan, udaletxe bakoitzean bina ordu egunean.

### *Eskolako haurren ateraldia*

Apirilaren 2an Ultzamako Elsora bidaia eginen dute Iturengo ikasleek.Goizean bi taldetan banatuta Erlauntzak eta Elsoko museoa bisitatuko dute, eta basoan bazkaldu ondotik, Iruñera joanen dira eta han Kili Kili parkean arratsaldea pasatuko dute.

Bertzalde, apirilaren 5ean Aste Sainduko oporrak hartu baino lehen, herri kirol saioa izanen dute ikasleak. Gelakoak banatu eginen dira eta talde bakoitzak kirol ezberdin bat egin beharko du.

### *Sagardotegira apirilaren 14an*

Aurtizko gazteek apirilaren 14an sagardotegira irteera antolatu dute. Apuntatu nahi duenak martxoaren 31 baino lehen egin beharko du ostatuan.

















# IV. ERDI AROKO AZOKA

## apirilak 15, igandea, Lesakan

KALE ANIMAZIOA

ipuin kontalaria, falkoneria, ezpata torneoa
kale antzerkia, erdi aroko kanpamentua,
perkusio eta gaita taldea,

AZOKA

40 artisau postu

TAILERRAK

keramika, beira, tonak, loreak, haur jokoak,
Napar Bideak txokoak eta jokoak

DANTZALDIA

19:00tan Plaza Zaharrean
Muxikoak Patxi Perezek gidatua

CEDERNA GARALUR

Nafarroa

GOIZUETA

# Hurrengo neguak hobeki prestatua harrapatuko du herria

Elurrak kentzeko kutxilla eta gatz zabalgailua erosiko ditu Udalak

**Esteban AROTZENA**

Lerro hauek idazteko egunean udaberrian sartuta gaude, baina herria erabat zurituta zegoen elur eta kazkabar erasoen ondorioz. Ilbeltzean ere elurte haundia egin zuen arazo larriak sortuz errepide eta baserrietako bideetan. Hormateei eta elurteei aurre egiteko herrian bertan nolabaiteko azpiegitura edukitzearen beharraz jabetzera eraman du honek Udala, ondorioz, elurra kentzeko kutxila eta gatz zabalgailua erosteko erabakia hartu du.

30.000 euroren bueltan balio dute aipatutako bi tresna horiek, baina Iruñeko Babes-Zibileko Departamentuarekin lortzear dagoen akordioa Udalak nahiko lukeen bezalakoa baldin bada, herriak ez du euro bat ere ordaindu beharko. Suhiltzaileen parkeko ibilgailuren batek erabiliko lituzke tresnak.



ARGAZKIA: AITZIBER LEKUONA

**Maiatzeko hauteskundeetarako ezker abertzalearen zerrendari babesa eskaini diote herritar askok.**

## *Herriaren egoeraren diagnosia*

Herritar talde batek egindako Goizuetaren egoerari buruzko txostenaren aurkezpenak ikusmin haundia sortu zuen. Martxoaren 10ean egindako ekitaldiak 60 lagunetik goiti elkartu zituen Ganbaran, eta interes handiz hartu zituzten diagnosia eta egileen ustetan arazoei eman litezkeen irtenbideak.

Azken 30 urtean biztanlegoa erdira jeitsi izana da herritarrak gehien kezkatzen dituen datua. Honi aurre egin ahal izateko, ezinbestekotzat jo zuten guztiek instituzio ezberdinen parte-hartze zuzena. Maitzeko udal hauteskundeetarako ezker abertzalearen zerrendaren baberako argazkiarekin bukatu zen ekitaldia.

## *Zaharren Elkarteko kontuak*

Zaharren Elkarteak argi azaldu dizkio Udalari bere kontuak. Iaz 76 euroko defizita izan zuten, baina aisa kitatu dute galera 2005ko 305 euroko superabitarekin. Beraz, 229 euroko irabaziak utzi ditu azken bi urteetako gestioak.

## *Dirulaguntzak*

Lehen ere emana genuen orri honetan eskolako hainbat berrikuntza eta konponketetan herriak gastatutako 38.000 euroren berri. Horri zegokion subentzioa jaso du orain Udalak, Nafarroako Gobernutik, ia 25.000 euro, hain zuzen.

ARESO

# Elurra kentzeko pala berria, azken elurteei aurre egiteko

Herriko eta baserriko errepideak garbitzen ibili da

**Juana Mari SAIZAR**

Berriro beste elurte bat. Baina oraingoan Udala prestaturik harrapatu du: elurra kentzeko pala erosi berria. Horrekin kaleak garbitzen ditu eta baserri gehienetara ere ailegatzen da. Herritik kruzera ere egin du ibilbidea. Orain arte gobernuaren elurra kentzeko makinak etortzen ziren herriraino, baina bigarren mailako errepidea izanik nahiko berandu ibiltzen ziren.

Honekin batera, zola berritzeko lanak bertan behera utzi dira. Halere, aipatzekoa da nahiko azkar ari zirela adokina jartzen eta itxura ona hartzen ari dela.

## *Egin kantu*

Leitzan grabatu zen «Egin kantu» ETB-1eko saioan bi herritarrek parte hartu zuten: Ainhoa Nieto kantatzen eta Izar Algero dantzan. Oso paper ona egin zuten eta hirugarren postuan geratu ziren.



ARTXIBOKOA

**Udaberrian sartuak, baina herria elurretan.**

## *Sokatira taldea*

Sokatira taldea aurten ere arituko da. Nahiz eta taldea osatzeko lanak izan diren, entrenamentu saioekin hasiak dira. Ea nolako denboraldia egiten duten.

Artesiagako Magnesita

## Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



LEITZA

# Teknologia berriekin hartuemanean jartzeko ikastaroak antolatu dira

Cederna-Garalur elkartearen ardurapean, apirilaren 16tik 27ra izanen dira Amazabal institutuan

**Joseba URKIOLA**

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza eta Cederna-Garalur elkartearen kudeaketari esker, teknologia berrien inguruko ikastaroak antolatu dira. Nahiz eta ikastaroek funtsean oinarri berbera eduki, antolatzaileek bi zatitan banatzea erabaki dute. Honela, ikastaroaren zati bat emakumezkoei zuzendua egonen da eta bestea hirugarren adineko herritarrentzako.

Jardunaldien helburua da gaur egun hainbesteko garrantzia duten teknologia berriekin hartuemanean jartzea eta askorentzat hain arrotz den kontua apur bat hurbilagoa egitea.

Apirilaren 16tik 27 bitarte Leitzako Amazabal Institutuan eginen dira. Parte-hartzaileek guztira 20 ordu sartu beharko dituzte. Aipatu, doan izango dela eta ordutegia jada finkatua dagoela. Hirugarren adinekoak 16:00etatik 18:00ak arte eta emakumezkoak, 18:00etatik 20:00etara. Aurretik izena eman beharko da, 948567016 telefono an.

### Ekitaldi ugari Emakumeen Egunaren harira

Aurten Emakumeen Nazioarteko Egunak gauza asko ekarri zituen leitzaldera, martxoaren 7 eta 8an ekitaldi eta jarduera ugari antolatu baitziren herrian.

Martxoaren 7an, Miren Aranguren Euskal Herriko Bilgune Feministako ordezkariak hartu zuen hitza. «Emakumeok gure eskubideak borrokatuz» lemapean, egun Euskal Herrian emakumeek bizi dutena eta emakumeen inguruan agintariak saltzen ahalegintzen direna plazaratzen ahalegindu zen. Honekin batera, Leitzako Bilgune Feministaren aurkezpena egin zen eta xumeki bada ere, argi utzi zuten Leitza oinarritzat harturik zein den beren ikuspuntua.

Hurrengo goizean Bilgune Feminista sortu berriaren gidaritzapean, Amazabal Institutuan Hezkidetza tailerrak egin zituzten.

Arratsaldean, herriko hainbat emakumek beren eskubideak aldarrikatze aldera, kontzentrazioa egin zuten. Egunari behar bezalako amaiera emateko, eguneko protagonistak Aurrera Kirol Elkartearen egoitzan bildu ziren eta bertsoak lagun, afariaz gozatzeko parada eduki zuten.

Ekitaldi hauekin, herriko emakumeek argi utzi nahi izan zuten, ofizialki nazioarteko eguna martxoaren 8a den arren, egun batekin ez dela nahikoa eta urteko egun guztietan ahalegindu behar dela ia ametsa den berdinatasunaren alde.

### Herritarrak Satur Eleta lehiaketan

Aralar Musika Eskolak antolaturiko aurtengo Satur Eleta lehiaketa azkenetan da. Txapelketako ibilbidea 81 partaideek hasi bazuten ere, martxoaren 31n Lekunberrin eginen den finalerako 30 partehartzaile geratzen dira. Finalista hauek erabakitzeko, aurretik hainbat kanporaketa jokatu dira. Horien artean, martxoaren 3an Leitzako Zinean egindakoa. Lekunberrin parte hartuko duten finalisten artean, leitzar ugari bildu ko da. Lehiaketak lau kategoriaditu eta modalitate guztietan, leitzarren bat beti izanen da present.





ARTXIBOKOA

### Iera Agirre Euskal Herriko txapeldun

**Iera Agirre leitzarrak Saioa Aristorena Etxarri-Aranatzko pilotaria lagun, Euskal Herriko III. Pala Txapelketa irabazi zuen. Martxoaren 10ean Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan bururatu zuen txapel garrantzitsua ez da lehenengoa. Aurretik ere irabazia baita beste Euskal Herriko Txapelketa bat.**

### Leitzako XXIX. Herri Krosa

Aste Santuko oporraldia amaitzearekin batera, aurtengo Leitzako Herri Krosak argia ikusiko du: apirilaren 15ean. Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako lasterketak, aurten 29 urte beteko ditu eta ikusteke egonen da, aspalditxotik Andres Perez lasterkari nafarrak ezarria daukan 29 minutu pasatxoko marka norbaitek hobetuko duen ala ez. Momentuz, herritar ugari hasiak dira prestatzen.

### EA bera bakarrik aurkeztuko da hauteskundeetara

Bertze herri batzuetan bezala, Eusko Alkartasuna ez da koalizioan aurkeztuko Leitzan udal-hauteskundeetara. Horrela erabaki zuten martxoaren 6an eginiko herri batzarrean.









## ABERASTASUNA

→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniaritza, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea, topografía, ingeniería ambiental, hostelería, alimentación, ferretería.

→ Baztango gazteriari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko bertze eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

## INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzoruak eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarriztatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiarik aurreratuena ingurumenaren zerbitzura**. Uhal garraiatzailen karenatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoak bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



## ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesitak errelebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua.** Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduera atxikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.

Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA I INGURUGIROA I ETORKIZUNA

www.magnesitadeartesiaga.es

BAZTAN

# Irurita-Elizondo saihesbidea Arraiozen hasi eta Elbeten akituko da

## Aurkeztutako lau proiektuetan laburrena aukeratu dute

ttipi-ttapa

Irurita eta Elizondo arteko errepide zati berria nolakoa izanen den zehaztu du Nafarroako Gobernuak. Arraiozko saihesbidean hasi eta Elbeten akituko dela adierazi zuen Alvaro Miranda Herri Lan kontseilariak martxoaren 19an Baztango Udaletxean egindako aurkezpenean. Errepideak 5,9 kilometro izanen ditu, aurkeztu ziren lau proiektuetatik laburrena, eta merkeenetarikoa, 9,55 milioi euroko aurrekontua. Lanen kontratazioa 2007 bukaeran egitea espero da, hartara, 2009ko udan irekia egonen litzateke.




UTZITAKO ARGAZKIA

### *Magnaren harrobiaren kontra Erdiz Bizirik*

**Lerro hauek idazterakoan oraindik ez zen egina, baina martxoaren 24an manifestazioa egitekoa zen Elizondon, Magnak Erdizen egin nahi duen harrobiaren kontra. Manifestazioa martxoaren 19an aurkeztu zuen Erdiz Bizirik Plataformak, Arizkunenean –argazkian–. Agerraldian, harrobiaren proiektua *«bertan behera gelditzeko arrazoiak gizarteratu»* nahi izan zituzten eta Baztango 15 herritan egindako batzar informatiboak *«arras parte-hartzaileak»* izan zirela gaineratu zuten. Gisa berean, Magnak etxeetara bidalitako propaganda *«trikimailu salagarritzat»* jo zuten. Baztango Udalak jarrera publikoki ez agertu izana ere kritikatu zuten.**

### *Jabier Zigaren museoa ireki nahi dute Elizondon*

Jabier Ziga margolariaren obra hedatzeko asmoz, bere izena eramanen duen fundazioa sortu zuten martxoaren 9an Iruñean. Funtsean, museo bat eraiki nahi dute. Fundazioko arduren banaketa ere egun berean jakinarazi zuten: lehendakaria Gurutze Ziga izanen da, artistaren alaba, Migel Ziga, semea, batzordekidea, eta hoinekin batera bertze hiru: Dolores Meoki, margolariaren iloba, Jose Antonio Arnedo, artean espezializatutako liburu-saltzailea, eta Alberto Belzunegi, abokatua. Idazkari lanetan, Historia Katedratikoa eta artearen historiako irakaslea den Pello Fernandez arituko da. Gaineratu zutenez, artistaren obra non jarriko den zehaztu artean ganbaran kokatuko dute.



PERTSONAIA

Rakel PARDO

## Iñigo Arista marrazki eta idazlan lehiaketan saritua

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxeko ikasle Rakel Pardoren idazlana saritu du, Iñigo Aristak zuzendutako idazlan eta marrazki lehiaketan. Iñigo Arista Kultur Taldeak urtero Nafarroako 5.mailako ikasleentzat Nafarroan barna kultur ibilaldiak antolatzen ditu, Nafarroako geografia, kultura eta historia ezagutzeko asmoz. Ibilaldia egin ondotik, programan parte hartu duten ikasleek marrazki edo idazlan bat egiten dute, egindako ibilbidean ikusitakoa adieraziz. Aurtengoa 26. edizioa izan da eta 4.439 ikaslek parte hartu dute. Horietatik sarituak 30 izan dira.












BAZTAN

# Ortziral honetan ailegatuko da Korrika Artesiagatik

## Bertzalde, bosgarren batzarraren ondotik alkaterik ez Elbeten

**Maite OTEIZA**

Martxoaren 30ean korrika Baztanerat etorriko da. Normalean gauez ailegatu izan da baina kasu honetan bazkalondoan tokatu da. Hala, adin guztietako jendeak izanen du aukera Korrikan parte hartzeko, eta ez da Korrika Ttikirik eginen.

Baztanen 37 kilometro erosi dira. Ortziral eguerdian Artesiagatik sartuko da, eta Izpegin emanen zaie lekukoa Iparraldekoei. Petoak eta materialak Elizondoko AEKn daude salgai.

### Alkaterik ez Elbeten

Elbetek alkaterik gabe segitzen du martxoaren 11n egindako bortzgarren batzarrean hautagairik aurkeztu ez zelako. Bilkurak partehartzearen aldetik arrakasta ttikia izan zuen, bi lagun baino ez baitziren agertu. Batzarrean izan ziren Baztango Junta Generaleko presidentea, Virginia Aleman eta Santiago Aldako alkateordea. Batzarrera joan ziren bi herritarrek, ordea, ez zuten hautagai izateko asmorik.

Baztango Junta Generalak apirilaren 2an eginen du legealdiko lehen bilera, eta orduan hartuko dute bi urteko kargua 14 herrietako alkate juradoek. Elbetekoa zein ote den jakiteko zain egon beharko da eta hurrengo asteetan zer gertatzen den ikusi.




ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

**Aurten ez dugu Korrika Ttikirik ikusiko, haurrek ere Korrika nagusian parte hartu ahal izanen baitute.**

### *Menpekotasun Legeari buruzko jardunaldiak*

Adinekoendako laguntzei buruzko informazioa eskaintzeko, hainbat saio antolatu dira. Menpekotasunaren Legearen harira, hurbileko informazioa eskainiko da, laguntzak non eta nola eskatu behar diren azalduz. Hizlaria Mirentxu Goienetxe gizarte langilea izanen da. Saioak ortzegunean Elizondoko Arizkunenean, ortziralean Arizkunen Elkartasuna Elkartean eta apirilaren 2an Urdazubiko Ikastetxe Publikoan izanen dira, kasu guztietan 18:00etatik aitzinera.

### *Bai Euskarari Ziurtagiria*

Martxoaren 20an, Kontseiluak eta Baztango Udalak Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzeko hitzarmena berritu zuten. Ekitaldia Baztan Balleko Etxeko sabaian egin zen, eta bertzeak bertze, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia eta Udaleko ordezkaritza bildu ziren. Kontseiluak *«eredugarritzat»* jo zuen Udalak proiektua martxan jarri izana. Eta udalordezkaritzak, *«euskaraz bizitzeko ametsa errealitate bihurtzeko guztion inplikazioa beharrezkoa»* dela erran zuen.











URDAZUBI

# Apirilaren 14an eginen da pilotaleku berriaren inaugurazioa

## Ugarana Emakume Elkarteak antolatuta, 31 lagunek afaria egin zuten sagardotegian

**Aitor eta Fanni**

Urte bat obretan egon ondotik, apirilaren 14an inauguratuko dute frontona. Aurrekontuaren zenbatekoa zehazki ez jakin arren, 500 mila euro ingurukoa izanen da. Andres Diharassarry alkatearen hitzetan, «*inaugurazio egunerako aldagelak ez dira moldatuak egonen, baina bestetarako dena prest egonen da*».

Inaugurazioaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira. 11:00etan hasita bi pilota partidu jokatuko dira. Afizionatuetan, Ontsalo-Garmendia, Renobale-Landiribar. Jubeniletan, Ollo-Madariaga, Etxaide-Iriarte. Segidan, aperitifa frontoi zaharrean, eta gero, bazkaria herriko jatetxeren batean.



**Ugarana Emakume Elkarteak antolatuta, emakume talde polita animatu ziren sagardotegira. Argazkia ageri denez, umore onean ibili ziren.**

Egun horretarako, Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta inguruko herrietako auzapezak gonbidatuko dituztela.

### *Afaria sagardotegian*

Martxoaren 9an Ugarana Emakume Elkarteak afaria antolatu zuen Hernaniko Petritegi sagardotegian eta talde polita animatu ziren, 31 emakume. Autobusez abiatu ziren herritik eta ongi afaldu ondotik, sagardotegi ondoko diskotekarat gan ziren. Afarirat gan ziren emakumeak hain ongi pasatu zutela ikusita, gan ez zirenak heldu den urtekorako tokia gordetzeko eskatu dute jadanik!

Erran, Emakume Elkarteko bazkide izan nahi duenak 15 euro utzi beharko dituela Anaxtaxiren etxean, eta hurrengo bilkuretarako abisatuko zaiola.

### *Etxebizitza gehiago*

Azken aldian gure herria handitzen ari dela dirudi, Dantxarineako bentez aparte, beste auzoetan ere etxe berriak altxatzen ari baitira. Hauetariko batzuk kanpotik etorritako jendearenak dira, oporretarako zein bertan bizitzen gelditzeko eraikiak. Halere, etxe horiez gain, herriko jendeak ere bertan gelditzeko duen interesa nabaria da. Azken urte hauetan, herriko gazteek aspaldiko etxebizitza kopururik handiena eraiki dute. Honek horrela segitzen badu, gure herriak etorkizuna segurtatua du.







45
2007ko martxoak 29

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Argitalpena

berriak
euskara batzordeen

# Heldu da KORRIKA!

■ 20 kilometro eginen ditu Bortzirietako errepideetan

Abiatua da dagoeneko 15. edizioa. Joan den ortzegunean eman zitzaion hasiera euskararen aldeko lasterketa honi. Bizkaiko Karrantzatik abiatu zen, eta Iruñean bukatuko da heldu den igandean, apirilak 1. Eta ibilbide horretan, lekukoz lekuko, 2.000 kilometrotik goiti eginen ditu.




## Heldu

Horixe aurtengo Korrikak daraman leloa. Eta horrek erranahi aunitz ditu: heldu hitzari, heldu lekukoari, heldu elkarlanari, heldu euskarari, heldu herriari.

Aurten Korrikak emakume euskalduna omendu du, mendez mende euskararen transmisioan bete duen funtzioagatik. Izan ere, gehienetan emakumea izan da seme-alabei, generazioz generazio, euskaraz egin diena, eta neurri haundi batean horri esker iraun du bizirik gure hizkuntzak.

## Bortzirietatik larunbat arratsean

Korrika larunbatean ailegatuko da Bortzirietara. Hain zuzen ere arratseko 10:30 aldera espero da Endarlatsara ailegatzea. Handik hasita, 20 kilometro eginen ditu Bortzirietako errepideetatik, Sunbillako mugaraino. Aurten Korrika ez da Bortzirietako herrietan sartuko, eta ibilbide guztia N-121-A errepidetik eginen du.

Korrika batzordeak Bortzirietako 20 kilometroak bitan zatitu ditu. Izan ere, aunitz izan dira Korrikari bere ekarpena egin nahi izan dioten herritar, talde, enpresa eta erakundeak; 48 eragile, guztira. Hortaz, aurten kilometroak baino kilometro erdiak izanen dira.

Batzorde horretako kideak gogotik aritu dira lanean otsailaz geroztik. Eta dagoeneko dena prest dago lasterketa ailegatzen denerako. Azken egunotan errepidea markatu dute, eragile bakoitzak bere kilometroa non duen jakin dezan, eta, horrez gain, bakoitzari bere dortsala banatu diote.

## Lesakan berendu-afaria

Ikusita Korrika zein ordutan pasatuko den gure herrietatik, Lesakan antolatze lanetan ibili direnek besta ttiki bat antolatu dute. Lehenbizi, 19:30ean, Korrikaren bideoa emanen dute, eta gero Nomadak-Tx filma. Ondotik, 21:00etan, berendu-afaria izanen da, eta menua honako hau: salda, haragia tomatearekin eta txokolate beroa. Eguraldi ona bada, Plaza Zaharrean izanen da, eta txarragoa izanez gero, Alhondigan.

## Patxi Usobiagaren solasaldia

Korrika Kulturalaren barrenean, joan den larunbatean Pantxoa eta Peiok Lesakan eman zuten kontzertuaz gainera, Patxi Usobiaga eskalatzailearen solasaldia izanen da. Hain zuzen ere ortziralean izanen da, martxoak 30, arraltsadeko 7:30ean Berako Kultur Etxean. Emanaldi hau Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatu da.



# Garaia delako, bai eskolak euskalduntzeari!

■ Helburua ikasle guztiak euskaldun osoak izatea da



**Horixe da Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena egiten ari den kanpainan erabilitako mezua. Eta horrekin aldarrikatu nahi du irakaskuntza sistemak belaunaldi berriak euskaldundu behar dituela, eta ikasle guztiak euskaldun osoak izateko beharrezkoak diren neurriak martxan jarri behar direla.**

Euskarazko irakaskuntzak lan haundia egin du azken hamarkada hauetan eta aitzinera pauso garrantzitsuak izan dira. Hala ere, oraindik orain aunitz dira euskara ikasi gabe gelditzen ari diren ikasleak, gaur egun dugun ereduen sistemaren ondorioz. Hortaz, egoerarik hoberena egon litekeen herrietan ere, eta euskara hizkuntza ofiziala den toki aunitzetan, ez dago ziurtatua ikasle guztiek euskara behar bezala ikasiko dutenik. Kanpaina honek ikasle guztiei euskara irakasteko sistema bat aldarrikatzen du.







## Bortzirietan Pirritx eta Porrotxekin batera

Bortzirietan aldarrikapena present egonen da herri guztietan eginen diren Korrika Ttikietan. Baina, horrez gain, mezua bereziki aldarrikatuko da Pirritx eta Porrotx pailazoek Beran eskainiko dituzten bi emanaldietan. Mari Motots izeneko ikuskizun berriaren emanaldi hauek apirilaren 25ean izanen dira, asteazkenarekin, bat 16:30ean eta bertzea 18:30ean. Sarrerak salgai egonen dira Aste Santu aitzineko astean, honako toki hauetan: Arantzako Pablo-enea ostatuan, Berako Agara Prentsan eta Errekalde ostatuan, Etxalarko Elutsa ostatuan, Igantziko La Villa ostatuan eta Lesakako okindegian. Sarrerak 5 euro balio du. Emanaldiak Berako Udaleko Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatu dira.

Egun horretan Bortzirietako haurrek eta gurasoek, Pirritx eta Porrotxekin batera kantatuko dituzte Bortzirietako Bertso Eskolak prestatutako bertsoak. Aitzinetik ere ikastetxe gehienetan bertso horiek landuko dituzte.

**«Mari Motots ikuskizunaren bi emanaldi eskainiko dituzte Berako Kultur Etxean apirilaren 25ean »**



# BAI EUSKARARI

■ 2007an 19 eragile berrik eskuratuko dute ziurtagiria

Bortzirietan orain dela bi urte hasi zen Bai Euskarari Akordioa lantzen. Egitasmo horrek hasieratik arrakasta haundia izan du Bortzirietako eragile ezberdinen artean. Lehenbiziko urtean 124 eragile bildu ziren Bai Euskarari Akordiora; 2006an 136 ziren ziurtagiria zutenak; eta 2007an, 19 eragile berri dira ziurtagiria eskuratuko dutenak.

Urte hasieran Markel Lizasoain teknikaria ibili da oraindik ere Bai Euskarari akordioaren berri ez zuten hainbat eta hainbat eragile bisitatzen. Eta 19 hauek izan dira ziurtagiria lortu dutenak:

| | |
|---|---|
| **ARANTZAKOAK** | Patxi haratergia |
| **BERAKOAK** | Hirukide zerbitzuak<br>Bidaxka ostatua<br>Igantzi arraindegia<br>Indarri hotz industriala<br>Jaione gozotegia<br>Jon Dozagarat igeltserua<br>J. B. Telletxea gozogintza industriala<br>Katea Bike bizikletak<br>Larun Haizpe elkartea<br>Odriozola-Huitzi aroztegi metalikoa |
| **ETXALARKOAK** | Etxalarko Kultur Etxea<br>Ginko lorazaintza<br>Ttipi-ttapa Fundazioa<br>Urriti landetxea |
| **IGANTZIKOAK** | Baratzondo elkartea |
| **LESAKAKOAK** | Apittu Aluminioak<br>Goiz-alde janari-denda<br>Ibai-ondo janari-denda |

## Larunbatean ziurtagiriak banatzeko ekitaldia eginen da

Larunbat honetan, martxoak 31, ziurtagiriak banatzeko ekitaldia eginen da, Berako Kultur Etxean, arratsaldeko 8:00etan. Ekitaldian parte hartuko dute Bai Euskarari Akordioarekin lanean ari diren taldeko kideek. Batetik, Xabier Mendiguren izanen da, Kontseiluko idazkari nagusia; bertzetik, Vicente Arotzena, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria; eta, horiekin batera, ziurtagiria banatzen arituko diren gainerako batzordekideak.

Eta, bertzalde, ekitaldira gonbidatuak daude Bai Euskarari ziurtagiria duten eragile guztiak. Batetik, 2005 eta 2006 urteetan ziurtagiria eskuratu eta orain berritu dutenak, eta, bertzetik, 2007an lehen aldiz ziurtagiria eskuratu dutenak.

# Euskal Herriko III. piropo lehiaketa
# Bortzirietako I. piropo lehiaketa

## ■ Lehiaketak hagitz harrera ona izan du; 62 piropo bildu dira Bortzirietan

Euskal Herriko Piropo Lehiaketa Urtxintxa Aisialdi Eskolak antolatzen du, hainbat herri erakunderen babesarekin, eta horien artean dago Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Aurten, Euskal Herrikoarekin batera, lehenbizikoz antolatu da Bortzirietako I. Piropo Lehiaketa, DBH eta Batxilergoko gazteentzako. Labiaga, Toki-Ona eta Xorroxin Irratia izan dira laguntzaileak.

Bortzirietako ikastetxeetako gazteek piropoak aurkezteko epea zuten otsailaren 19ra arte. Aitzineko asteetan lehiaketaren inguruan giro aproposa sortua zen. Ikasleek gogotsu ekin zioten gustuko pertsonari erran nahiko lioketen piropoak asmatzeko lanari, edo gozamenari.

Lehiaketak sekulako harrera izan du. Orotara, 62 piropo bildu ditugu Bortzirietan. Hori aunitz da. Donostia osoan antzeko kopurua bildu da, eta begi bistakoa da aldea, 8.000 lagunetik gora gara Bortzirietan, eta



200.000tik gora Donostian. Euskal Herri osoan, guztira, 585 piropo jaso dira. Aisialdiko begirale, teknikari eta udal ordezkariek osatutako epaimahai batek Euskal Herriko eta Bortzirietako 10 onenak aukeratu zituen.

Bortzirietako 10 onenak eta Euskal Herrikoak parez pare jarrita, batzuk errepikatzen dira. Horrek erran nahi du Bortzirietako hainbat piropo ailegatu dela Euskal Herriko finalera. Orain, ikasleei dagokie aukeratzea gustukoena zein duten. Lau lagunentzako egonaldia izanen da irabazlearentzako saria. Horren berri emanen dugu Aste Santua baino lehen.

Bien bitartean, hona hemen bi zerrendak. Segi dezagun hizkuntzarekin sortzen!

### BORTZIRIETAKO HAMAR ONENAK

1. Ez dut nahi lorategiko larrosa ezta goizaleko laiotza, nik nahi dudan bakarra da zure bihotza.
2. Ez dut piroporik errateko zu baitzara ederrena.
3. Edertasuna txarra balitz, zu gaizkilea izanen zinateke.
4. Gustatuko litzaidake gure maitasuna itsasoa bezala izatea, hasiera ikustea baina bukaera ez.
5. Zu ilargia bazina eta ni eguzkia, bion artean sortuko genuke maitasunezko eklipsea.
6. Loreek eguzkia, itsas-arrainek ur gazia eta nik zu, nire maitia!!!
7. Hitzek baino gehiago erraten duen ixiltasuna zara zu.
8. Zure irribarrearen arrazoia izan nahi nuke.
9. Lasainaren gainaldeko gazta baino hobea zaude.
10. Potolo izan edo izan fin, ni beti zurekin.

### EUSKAL HERRIKO HAMAR ONENAK

1. Ama naturak gauza ederrak egin ditu eta zu zara horietan ederrena.
2. Gustatuko litzaidake gure maitasuna itsasoa bezala izatea, hasiera ikustea baina bukaera ez.
3. Markoa bakarrik falta jatzu arte lan bat izateko.
4. Lasainaren gainaldeko gazta baino hobea zaude.
5. Potolo izan edo izan fin, ni beti zurekin.
6. Hitzek baino gehiago esaten duen isiltasuna zara zu.
7. Deitu 112ra bonbero bat behar baduzu, baina musu bat nahi baduzu nire zenbakia hor daukazu.
8. Ni surfista izango banintz zu izango zinateke olatu perfektua.
9. Musu bat mikrobio trukea bada, pasaidazu gripea!
10. Zu zara nire erdibitutako bihotza jos dezakeen orratz bakarra.

ZUGARRAMURDI

# ETB-1eko «Sut&Blai» programakoek grabaketak egin dituzte herrian

## Haur parke berria frontoi zaharrera pasatuko da

**Margari eta Koro**

Martxoaren 14an ETB-1eko langileak grabaketak egiten ibili ziren herrian. Hainzuzen, «Sut&blai» programakoak egon ziren.

Herriko istorioak eta bazter politenak grabatzeaz gain Akelarre Elkarteko Kaiet, Xabier eta Garazirekin egon ziren; eta ondotik Ekialdeko Dantzak ikasten aritzen diren gaztetxoei ere dantzan grabatu zieten.

Programa hau egunero 18:45ean ematen dute, eta Zugarramurdin grabatutakoa noiz emanen duten ez dakigunez, hor egon beharko dugu adi egunero.



ARTXIBOKOA

### *Korrikarako kilometroa erosia du herriak*

**Korrikara 15erako kilometro bat erosi da herrian, eta martxoaren 31n korrituko da. Egun hori larunbata da, eta 18:30ean jarria da hitzordua. Bide zelaia izanen da: Oletan, Urruña eta Azkain tartean. Beraz, ea ahal bezain bat lagun animatzen den. Argazkia orain lau urteko Korrikakoa da, eskolako haurrek korrika ttikia egin zutenekoa.**

### *Bestak prestatzen hasiak dira*

Bestetako kontu batzuk ere baditugu. Martxoaren 16an egin zen bilkuran orkestra guztiak kontratatuak direla jakinarazi zuten. Horrez gain, haurrendako ekitaldi zahar-berri bat ere berreskuratu nahi da: betiko haur-jokoak.

### *Haur parkerako dirulaguntza jasoko du*

Aintzineko Ttipi-Ttapan jakitera eman zuen, bertze herri batzuetan bezala, Zugarramurdik ere haur parkea antolatzeko dirulaguntza hartuko duela. Lana eta tresneria guztien aurrekontua 24.000 euroko ingurukoa da eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak erdia ordainduko du

Parkea tokiz aldatuko da pilotaleku zaharrera pasatuz, eta hauxe da eginen dena: errepide aldera ematen duen paretan babesa eman, ataka jarri, zuhaitz batzuk landatu, eta behar diren kolunpio eta tresneriak jarri. Lan guzti hauek udarako finituak izatea espero da.

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

ttipi ttapa
✆ (0034) 948 635458

alletu dira ibardingo haize berriak...
venta AGUIRRE benta
THE COTTÉ
TOMMY
PEPE JEANS
EDC
ESPRIT
JATETXEA
DENDA
IBARDINGO GAINA · BERA
948 631 158 · 948 631 314

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

SARA

# XXIV. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra apirilaren 9an, bazko astelehenean

Jacques Antz saratarrak «Les chapelles et oratoires de Sare» liburua aurkeztuko du

ttipi-ttapa

Apirilaren 9an, egun osoan herriko kiroldegia irekia egonen da eta 150 idazleren lanak egonen dira eskuragai. Liburuen aurkezpenak egiteaz gainera, idazleek sinadurak ere emanen dituzte. Liburuez gain, izanen da bertzelako aukerarik ere: argazkiak, margoak, diskoak, eskulturak...

Biltzar egunean aurkeztuko diren liburu berrien artean, Jacques Antz saratarraren «Les chapelles et oratoires de Sare» dago. Iazko biltzarrean bi liburu aurkeztu zituen (Sarako argazki zaharrekin egindako «Autrefois Sare» eta Frontière Contrebande Ventas de la Bidasoa à Dancharia»), eta aurten ere ez du hutsik eginen. Gisa berean, aipatu, Henri Duhauk ere liburu berria ateri duela: «Dufau, bi anaiak».

Bertzalde, aipatzekoa da egun berean 2007ko Eusko Ikaskuntzaren bekak ere banatuko direla.

Iaz 120 idazlek parte hartu zuten, eta guti gorabehera mila lagun etorri ziren. Aurten ere jende ainitz hurbiltzea espero da.

### *Kontzertua Lur Berrin*

Asteazken honetan, martxoaren 28an, Berako Musika Eskolako ikasleek kontzertua emanen dute Lur Berri 17:30ean. Denetarik adituko da: perkusioa, teklatuak, biolina, txistua, akordioia, pianoa, tronpetak, trikitixak, pop taldea eta ahotsak. Ordu bat lehenago, karrikaz-karrika ibiliko dira animazioa sortzen.





UTZITAKO ARGAZKIAK

**Azkeneko urteotan jende ainitz biltzen da Biltzarraren karietarat. Aurten ere 150 idazle inguru etorriko dira eta jendearen partehartzea espero da.**






SENPERE

# Bizi Garbia elkargoak bilduko ditu hondakin elektronikoak

## Kaskoz Kasko ibilaldia maiatzaren 8an eginen dute Senpereko mendietan

**Franck DOLOSOR**

Erabilgarriak ez diren tresna elektronikoak zaborontzirat edo birziklatzeko ontzietarat ez botatzeko galdegin du Bizi Garbiak, hondakinez arduratzen den herri elkargoak. 2005eko udan, elkargoak erabaki zuen horrelako hondakinak biltzea Arrangoitzen, Bidarten, Donibane Lohizunen eta Senperen dituen biltegietan. Lan horretan aitzindaria izan da elkargoa baina tartean legedia aldatu da. «Eko-partehartzea» sistema martxan ezarri da.

Bezeroek dirutza bat pagatu behar dute ordenagailuak erosten dituztelarik, adibidez. Horrelako hondakinez estatuak arduratu behar bazuen ere, Bizi Garbiaren nahia eta esperientzia kontuan hartuz, azkenean bi parteek hitzarmen bat egin dute berriki. Horrela, elkargoak segituko du lan horretan. Posible den neurrian, tresnak arrimatuko dituzte, eta bertzenaz, tresnek izan ditzaketen gai kutsakorrak kenduko eta desegin eginen dituzte piezak errekuperatzeko. Plastikozko eta burdinezko zenbait gai ere birziklatuko dituzte.

Beraz hemendik goiti badakizue non bota behar diren gehiago ibiltzen ez diren tresna informatikoak eta elektronikoak.

### Kaskoz Kasko mendi ibilaldia

Aurten ere, Kaskoz Kasko egin da gure mendietan barna. Oinez elkarteak prestatzen duen ekitaldi hori maiatzaren 8an izanen da. Ibarrundik bi ibilaldi aterako dira, bata 10 kilometrokoa eta bigarrena 30ekoa.

### Egoitza publiko berriaren inaugurazioa

Zaldubi ikastola eta aisialdi gunea aterpetzen dituen egoitza publiko berria inauguratuko dute martxoaren 31n, 11:30ean.

### Turismo bulegoako webgunearen harrera ona

Turismo bulegoaren web orrialdeak izan dituen bisiten kopurua %80 emendatu da azken urte honetan. Informazioa telefonoz ere eskatzen duen jendearen kopurua gelditu gabe haunditzen ari da. Halaxe eman zuten jakiterat, elkarte honetako arduradunek azken biltzar nagusian.

Aipatu, gure eskualdea ezagutarazteko Rennes, Lyon, Okzitaniako Tolosa eta Bilboko turismo salonetan parte hartuko dutela Senpereko turismo bulegokoek.

### Adin Ederra elkartearen biltzarra

Adin Ederra elkarteak osasun onean segitzen du. Bere azken biltzarrean, 175 lagun bildu ziren Ibarrungo Boneteian. Kantuez gain, dantzan ere badakitela ederki erakutsi zituzten gure zaharrek. Balsa eta tangoez gain, rocka eta horrelako erritmo berriak eman zituzten.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

### 150 lagun Amorroinaren kofradiaren bestan

**150 lagunek parte hartu zuten Amorroinaren kofradiak apailatu zuen bestan. Lagun horiek guztiak Amotzeko Blankarteian bildu ziren. Aurtengoa 23. edizioa izan zen eta aurpegi berriak ikusi ahal izan ziren. Horien artean, Bixente Fagoaga eta Patxi Lacan daude. Fagoaga ongi ezaguna da errugbian duen maila dela-eta. Senperen aritu ondotik, bere dohaiak Baionan eta orain Donibane Lohizuneko taldean erakusten ditu. Lacan, berriz, Amotzen da ezaguna. Denbora luzez, Luis Mariano kantariaren gidaria zen eta biak Blankarteirat etortzen ziren tarteka Darry Cowl aktorearekin.**











# EZKONTZAK

**Juan Rekalde Ekiza** eta **Virginia Zandio Etxaide**, Zigan, martxoaren 10ean.
**Mikel Zandio Etxaide** eta **Maria Latasa Lasa**, Zigan, martxoaren 10ean.
**Francisco Javier Santxotena Irigoien** eta **Itziar Agerre Irigoien**, Irurita eta Erratzukoa, uztailaren 29an.
**Marcelino Santesteban Elizalde** eta **Angela Otxandorena Goñi**, Zubietan martxoaren 10ean.
**Ernesto Ariztegi Etxepeteleku** eta **Maider Bereau Altxu**, Iturengoak martxoaren 18an.



# SORTZEAK

**Iker Escagües Portu**, Berakoa, martxoaren 7an.
**Kiara Trigueros Ruiz**, Berakoa, martxoaren 6an.
**Julen Ruiz Chinchilla**, Doneztebekoa, otsailaren 27an.
**Aitor Azkarraga Fernandez**, Etxalarkoa, martxoaren 15ean.
**Uxue Santesteban Otxandorena**, Zubietakoa, martxoaren 13an.



# HERIOTZAK

**Salvador Indakoetxea Salaberria**, Goizuetakoa, martxoaren 2an, 80 urte.
**Ramon Loperena Elizalde**, Zubietakoa, martxoaren 7an, 45 urte.
**Sor Maria de Cristo Villanueva Larraioz**, Elizondokoa, martxoaren 11n, 91 urte.
**Jesus Javier Zabaleta Zabaleta**, Leitzakoa, martxoaren 7an, 44 urte.
**Felisa Martiarena Legazkue**, Legasakoa, martxoaren 11n, 81 urte.
**Jose Maria Elizalde Irazoki**, Berakoa, martxoaren 12an, 82 urte.
**Emiliano Etxenike Organbide**, Urdazubikoa, martxoaren 13an, 64 urte.
**Mª Dolores Mazizior Larralde**, Lesakakoa, martxoaren 15ean, 79 urte.
**Catalina Etxekolonea Mitxeo**, Saldiaskoa, martxoaren 17an, 96 urte.
**Dionisia Karrikaburu Zelaieta**, Elizondokoa, martxoaren 18an, 92 urte.
**Jose Maria Ameztoi Irisarri**, Lesakakoa, martxoaren 19an, 84 urte.



**Joseba Andoni**
**URDANITZ ETXEBERRIA**
1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

**V. URTEMUGA**

Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN
TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA
Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA
Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA
Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA
Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

PILOTA



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA
**Eskuz binakako txapelketako finalean parte hartu duten pilotari batzuk, Doneztebeko eskolako pilotalekuan.**

# Malerrekako Bosgarren Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu dira

## Martxoaren 10ean Doneztebeko San Migel ikastetxeko pilotalekuan

**Gurutze PIKABEA**

Martxoaren 10ean jokatu ziren Doneztebeko San Migel eskolako pilotalekuan Malerrekako eskuz binakako bosgarren eskuz binakako finalak. Eskualdeko pilotariez gain, kanpoko bertze hainbatek parte hartu dute txapelketa honetan. 12 final jokatu ziren guztira, goizean zortzi eta arratsaldez gainerako lauak. Eguerdian, berriz, Santamaria jatetxean bazkaldu zuten. 100 bat lagun hurbildu ziren bertara.

Txapelketa hau Doneztebeko Erreka kirol elkarteak antolatzen du, aurtengoa bosgarren edizioa izan da eta antolatzaileak hagitz kontent agertu ziren. Euren hitzetan, 450 lagun pasatu ziren frontoitik finalak ikustera. Pilota partida guztiak akaututakoan sari banaketa egin zuten eta ondotik luncha.

**Aurrebenjamin bigarren mailan**, Oier Berasategi eta Mikel Lana 18 eta 17 nagusitu zitzaizkien Iñaki Maylin eta Julen Indari.

**Aurrebenjamin lehen mailan**, Mikel Oteiza eta Julen Saldiasek 18 eta 17 irabazi zieten Haritz Narbarte eta Eloy Garziari.

**Benjamin bigarren mailan banaka**, Julen Juankorena eta Jon Belarra buruz buru. Lehenak 18 eta 8 irabazi zuen partida.

**Benjamin bigarren mailan binaka**, Julen Juakorena berriz aritu zen Ander Iraola lagun zuela. Iosu Mitxeo eta Mikel Retegiren aurka jokatu zuten partida eta lehenak irabazi zuten 18 eta 7.

**Benjamin lehen mailan**, Gipuzkoa aldera joan zen txapela. Tolosako Iturbe eta Peñak 18 eta 2 garaitu zituzten Olaztiko Grados eta Fernandez.

**Alebin bigarren mailan**, Burlatako Nobal eta Agirrek 18 eta 9 irabazi zieten Oiartzungo Ugalde eta Irigoieni.

**Infantil bigarren mailan**, Jokin Hualde eta Julen Altxuk 18 eta 17 irabazi zioten Cristofer Alvarez eta Jon Mikelarrena bikoteari.

**Infantil lehen mailan**, gipuzkoarren eta nafarren arteko lehia jokatu zen: Burlatako Iribarren eta Mayans Añorgako Gaztañaga eta Lizasoren aurka. 18 eta 9 irabazi zuten gipuzkoarrek partida.

**Kadete mailan**, Erreka taldeko Aiestaran eta Iraolak Barañaingo Lagunak taldeko Iraizoz eta Tainta menean hartu zituzten, eta 18 eta 8 irabazi zuten.

**Jubenil mailan**, Txarutakoak Berria Txapelketan jokatzekoak zirelako aldaketa batzuk izan ziren. Amezketako Zazpi Iturri taldeko Iraola, Garikoitz Juanenaren ordez aritu zen Xabi Madariagarekin (Txaruta). Aurkari Arantzako Ekaitzako Imanol Mitxelena eta Zazpi Iturriko Leunda izan zituzten (azken hau Patxi Barberenaren ordez aritu zen). Partida Mitxelenak eta Leundak irabazi zuten, 22 eta 15.

**Senior bigarren mailan**, Burlatako Zugarralde taldeko bi bikote izan ziren aurrez aurre: Garzia eta Gironezek 22 eta 10 nirabazi zieten Txorraut eta Irazeburuari.

**Helduen mailan**, ikusmin haudia sortu zuen partidak. Zazpi Iturriko Elurbe eta Garmendia Aurrera Saiazko Renobales eta Txarutako Elizalderen aurka aritu ziren. Partida jokatu aitzinetik, aunitzek txapela Renobales eta Elizalderengana joanen zela uste bazuten ere, azkenean Elurbek eta Garmendiak 22 eta 7 irabazi zieten.

MENDI DUATLOIA

# Errioxako mendi duatloi proba bat irabazi du Mitxel Aginagak

## Munduko Green Cup Txapelketarako prestatzen ari da




UTZITAKO ARGAZKIA

**Mitxel garaile atera zen Errioxako duatloi proban. Argazkian Ion Egillo eta Angel Martinezekin ageri da, bigarren eta hirugarren gelditu zirenekin.**

G.P.

Mitxel Aginaga kirolari narbartearrak emaitza onak eskuratu ditu berriz ere. Martxoaren 10ean Errioxako San Felices de Haro herrian jokatutako mendi duatloi proba irabazi zuen. Aitzineko urtean ere berak irabazi zuen proba.

Kirolariek 10 kilometro oinez egin zituzten, bi itzuli mendiko zirkuitu bati, igoerak, jautsierak eta lauak tartekatuz. Gero lau itzuli bizikletarekin zirkuitu berari, 20 kilometroak eginez.

Mitxel BH-Inverse taldeko kirolariak bere taldekide Angel Martinezekin egin zuen ihesi, baina probaren lehenbiziko saioa alde nabarmenarekin irabazi zuen narbartearrak. Bizikleta hartzearekin tartea ireki zuen Mitxelek eta lehen itzulia eta gelditzen zitzaizkion hirurak bakarrik egin zituen. Bakar-bakarrik helmugaratu zen. Sailkapenean, Mitxel Aginagaren ondotik, Ion Egillor (Goierri triatloi taldea) gelditu ziren bigarren eta Angel Martinez (BH-Inverse taldea) hirugarren.

Garaipen honekin aitzineko bi aste hondarretako bolada txarrarekin amaitu zuen. Izan ere, Espainiako Puertollanon jokatutako Green Cup-eko Europako Txapelketan eta Castroverden egindako Duatloi-Kros Espainiako Kopan saioak bertan behera utzi behar izan zituen, gurpila lehertzeagatik lehenbizikoan eta katea hausteagatik bertzean.

Martxoaren 17an bertze errepideko duatloi proba batean parte hartzekoa zen Oñatin (8 kilometro oinez, 40 kilometro bizikletan eta 4 kilometro oinez). Saio hori urteko hitzordu garrantzitsu baterako prestatzeko izan zen, Argentinan eginen den Munduko Green Cup Txapelketarako, hain zuzen. Azken hau apirilaren 1ean jokatuko da eta kirolariek 7,5 kilometro oinez mendian, 30 kilometro bizikletaz, eta berriro 7,5 kilometro oinez mendian egin beharko dituzte.

PILOTA

# Almandoz eta Aiestaranek irabazi dute Lesakako frontenis txapelketa

## 30-26 garaitu zituzten Martinez eta Rodriguez

G.P.

Lesakako Batzoki Elkarteak antolatuta II.Frontenis txapelketako finalak jokatu ziren Lesakako pilotalekuan. Txapelketaren lehenengo edizioan bezala, kirolari berak izan ziren finalean: Iosu Almandoz eta Iker Aiestaran, Diego Martinez eta Iñigo Rodriguezen aurka. Aitzineko aldian bezala, Almandoz eta Aiestaranek irabazi zuten, 30-26.

Hasieratik aitzinetik joan zen bikote irabazlea; zazpi puntuko aldea ere atera zieten. Hala ere, azken aldera, tanto guttiko aldearekin hurbil ibili ziren Martinez eta Rodriguez.

Partidaren ondotik, sari banaketa egin zen pilotalekuan bertan eta irabazleek txapela eta oroigarria jaso zituzten; Martinez eta Rodriguez txapeldunordeek ere euren oroigarriak eraman zituzten etxera.

Sariak Irigoien herriko pilotariak eta Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkateak eman zituzten.

# Txiki Urrutia eta Andres Burgete Baztango lehen mailako paleta gomako txapeldun

G.P.

**Martxoaren 17an jokatu ziren Baztango lehen mailako paleta gomako txapelketako finalak Elizondoko Antxitonea Trinketean, eta Txiki Urrutia eta Andres Burgete atera ziren garaile. 40-25 irabazi zieten Miguel Retegi eta Kani Galarregi bikoteari. Lehen mailako finalaren aitzinetik, bigarren mailakoa ere jokatu zen, eta Tomas Urrutia eta Asier Argaratek 40-25 garaitu zituzten Lander Oskoz eta Santi Pegneguy. Saioan hainbat jende ezagun bildu zen, horien artean Mikel Goñi, Iñaki Lizaso, Alejandro Galarregi eta Luis Mari Iturriria.**


moda gehigarria 07
udaberria
uda










# Udaberri-Uda 07
## azkeneko *joerak*



## Emakumeak

Udaberri-uda honetan estilo ezberdinak ikusiko ditugu: navy, folk, hippy, oversize... baina denen gainetik, retro estiloa nagusituko da. Soineko arinak, jantzi zabalak, pitillo galtzak, torerak, topak, cardiganak, traje maskulino motzak, shortak, trenchak, tunikak, soineko motzak, etab. eramanen dira. Ausartzen baldin bazara, puri-purian dagoen bertze jantzia babydoll motako soineko zuriak dira, haurrarena dirudien soineko motza. Lihoa, zeta, gasa eta kotoia bezalako materialek folk inspirazioa oroitaraziko digute. Kolore eta estanpatuekin jokatuko da eta degradea, irudi grafikoak eta loreak nabarmenduko dira. Parpailak mauka, eskote eta gonetan ikusiko dira eta drapeatuak ere puri purian daude. Eta koloreei dagokionez, kolore zertzelada batzuk dituzten kolore neutroak nagusituko dira. Zuria da den-

### lihoa, zeta, gasa eta kotoia



## Bainujantziak

Diseinatzaileek aurkeztutako proposamenen arabera, sport estiloa, sexia, hippya, fashion, chic eta estilo grafikoa eramanen dira besteak beste. Pikartadurak, arraiak, Vichy laukiak eta batez ere loreak nagusitzen dira baina koloreari dagokionez ez dago mugarik. Retroa da indar handiarekin datorren bertze joera bat. 1950 eta 1960. hamarkadetakoen antzekoak dira eta forma arras erakargarriak dauzkate, pin-up izeneko estilokoak. Pieza bakarrekoek, bikiniek eta trikinikiek inspirazio iturri honetatik edaten dute eta hau,



kolore guztietatkoak



ile mozketa desestrukturatuak

## Orrazkera berriak

Udaberri-uda honetarako, ile mozketa desestrukturatuak eta kopetile zuzen eta pisudunak gomendatzen dizkigute. Ile motzaren kasuan, mozketa ausartak eta sentsualak izan daitezela. Kolore tonuak, aldiz, beroak izan daitezela: eguzki ukitua duten txokolate-



estanpatu nabariak

## Emakumezkoen oinetakoak

Erosotasuna eta kolorea dira joerako ezaugarri nagusienak eta oinetako baxuetan dagoen aukera zabalean islatzen da hori: bailerinak, zapatilak, ojotak, txinalak, sandaliak... Guztiek punta biribilak izanen dituzte. Sandalia altuetan plataformak izanen dira erabilienak. Estilo urbanoak, zapatila gama zabala hartzen du bere baitan. Diseinu arrunta dute baina estanpatuak oso nabariak dira: loreak, abstraktoak, etab. Retro estiloko oinetakoek parpaila, bordatu, lore-sorta eta karelak bezalako apaingarriak izanen dituzte. Koloreei dagokio-

















# Gizonezkoak



Mutilen artean bermudak, hippy estiloko ator arinak, bakeroak, safari estiloko alkondarak, pirata galtzak eta trench berokiak nagusituko dira. Mauka motzeko ator bakeroak ere itzuliko dira. Eta azkenik, sinisten ez baduzu ere, amatxik ehundutako puntuzko txaketak inoiz baino gehiago erabiliko dira. Galtza bakero urdin ilunekin eta Converse estiloko zapatilekin jantziko dituzte.

Zuria da udako kolorea. Lur gorrixka eta artisautzaren koloreak ere agertzen dira. Koloreko jantzkiei dagokionez, tonu naturalenak fuksia bezalako kolore indartsuekin nahasiko dira. Beltza, kaki orlegia, pitoi edo lehoinabar estanpatuak eta marra horizontal lodiak ere ikusiko ditugu.

Ehunak tradizionalak izanen dira. Lihoa eta kotoia bezalako ehundura zaharrak, arinak, mediterranearrak mantendu dituzte. Jantzi sintetikoei dagokionez, lycra, latexa edo eta plastikoa bezalako ehunak barneratu dituzte, bainujantzietan batez ere.

Osagarriei dagokionez betaurreko handiak izanen dira osagarri chic eta sofistikatuena. Gehien eskatzen direnak retro eta hegazkinlari estilokoak dira. 70. hamar-




## Orrazkerak

Gizonezkoen kasuan, denboraldi honetako joera Shaggy (ile harrotua) estiloko mozketak dira. Txirikorda, errulo, uhin eta ile bildu informaletan aplike gutti jartzea gomendatzen da, lepoko eta aroek toki garrantzitsua hartzen dutelako. Argizari, pomada edo gelak erabiliz bereiziko dira





## kolorea, Fantasia eta erosotasuna

## Lentzeria

Alaia eta hagitz naturala izanen da gizonezkoen barneko arropa denboraldi udaberri-uda honetan. Boxerrak, slipak eta kamixetak kolore eta estanpatu ezberdinen arabera konbina daitezke. Diseinu alaiak, udaberriko kolore freskoak eta loreak, motak eta marradun estanpatuak ikusiko dira, hauekin konbinazio bat baino gehiago egin ahal izateko. Bilduma hau, erosotasunari uko egin gabe, lentzeriari norbere estiloa eta ukitu pertsonala eman nahi dion gizonezkoarentzako aproposa da.

## Bainujantziak

Hawai gogora ekarriko duten marrazkiak ikusiko ditugu. Minimalistagoak izan arren, estanpatuen artean beti loreak izanen dira nagusi. Loreak puripurian egonen dira eta berdin aplikatuko dira tangetan edo bermudetan.

## Gizonezkoen oinetakoak

Gizonezkoen oinetakoa erosoa, praktikoa eta funtzionala da eta kirol eta artisautza estilo informalean inspiratutako diseinu berriak nagusituko dira. Txinelak, sandaliak, mokasinak eta zapatilak izanen dira gehien eramanen direnak. Zapatila tradizionalagoaren itxura duten kirol oinetakoak eta urbanoak azpimarra daitezke, lonazko oinetakoak eta hauek estanpatu eta material berriak izanen dituzte. Dandy korrontea ere ikusiko da. Oinetako informalek, puntak karratuxeagoak izanen dituzte eta kolore monokromatikoak. Sandalia eta txinelek kortxozko zola anatomikoa izanen dute. Lonak, larruak, sintetikoak, ehunak, hari koloretsuak, lihoak, etab. eramanen dira. Akabatuak mateak, zimurrak, zaharkituak, metalizatuak eta distiratsuak dira eta koloreak paste-

## oinetako eroso eta funtzionala

























# Haurrentzako moda

Ttikienentzat interpretazio librea ahalbidetuko du modak eta kolore paleta zabala eskainiko du.

Joerak basamortuko duna beroetan, tropikoen magian eta periferiako erdiko puntuan inspiratzen dira.

Hareazko ozeanoa jade, zerua, kaktusa, lanbroa eta buztingorria bezalako gama pigmentario eta dardarkari batekin tindatuko da, eta kolore hauek oinarri errustikoko ehundura eta estanpatuetan agertuko dira.

Tropikoetako uda zaharkitutako koloreengatik nabarmenduko da. Morea, malba, korala, urdina, zuria, aparra eta alga berdearen ñabardurak irudi exotikoetan eta ehun desgastatuetan ikusiko ditugu.

Gaurkotasuna kolore horixka, horia, arrosa, urdina eta berde distiratsu eta erakargarriekin zipriztindua agertuko zaigu. Gehienetan zuriarekin nahasiko dira ar-

## kolore distiratsu eta erakargarriak



## Bainujantziak

Guztiaren gainetik erosoak izanen dira bainujantziak. Kolore biziak, estanpatuak, diseinu dibertigarriak eta haurren bainu modari chic ukitua ematen dioten diseinuak eskaintzen dituzte denboraldi honetarako. Neskek bikiniak edota trikiniak eramanen dituzte. Mutilek, aldiz, bermuda klasikoak edo boxer motako bainujantziak aukera ditzakete eta kolore bakarrekoak, loredunak, arraiadunak, etab. izan daitezke.



erosoak eta koloretsuak



estanpatuak, grabatuak, margotuak...

## Haurrentzako oinetakoak

Txinelak eta sandaliak nagusituko dira. Neskentzako babutxa eta ballerinak eta mutilentzako kiroletakoak. Kaletar estilokoak dira azpimarragarrienak. Kolore guztietakoak ikusiko dira: arrosak, berdeak, urdinak, horiak, zuriak, marroi argiak, erdoilak eta beraien bertsio metalizatuak. Material estanpatuak, grabatuak, margotuak eta bordatuak indarrean daude baita zinta, goma, itxitura eta jostura apaingarriak ere. Nesken oinetakoetan loreak, izarrak, bihotzak eta pertsonaien irudiak agertuko dira, eta mutilenetan, pertsonaiek baino indar handiagoa izanen dute zenbaki eta hitzek. Larru leunez gain, lonak, ehun gordinak, makrameak eta sareek ere indarra









# moda gehigarria 07

# udaberria uda


















MERCHE
MODA HOMBRE
Serapio Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626
- Giovani Valdi
- Sandra Sellini
- Caramelo Gala


CAPELETTI
HOMBRE
Mendibil Merkatal Zentrua - 20302 IRUN • Tfnoa: 943 624 672


1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
albornozak · mantelak
edredoi nordikoak · kuxinak
ohe estalkiak · maindireak
toailak · edredoi-azal nordikoak
udaberriko eskaintza berria
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### IKASTAROAK

#### BAZTAN

**Martxoaren 30ean** Janari-erabiltzaile baimena ateratzeko. Alkaiagan, 16:00-19:30. Izen-ematea: 948 625122. Prezioa 30 euro.

### LEHIAKETAK

#### ESKUALDEA

**Martxoaren 30a bitarte**, «Marraztu Europa» marrazki lehiaketa (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoentzat), «Konta nolakoa den Europa» kontakizun laburren lehiaketa (Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat) eta «Europari buruzko binetak» komiki lehiaketa (Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzat) antolatu ditu Cederna-Garalurren elkarteak. Lanak Cedernaren bulegoetan aurkeztu behar dira.

### ERAKUSKETAK

#### AMAIUR

**Martxoaren 29an eta 30ean**, eta **apirilaren 3tik 8ra,** Juan Gorritiren «Gure Basoak» erakusketa. Serorategian, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

#### ELIZONDO

**Apirilaren 2an**, Nafarroa eta zinea erakusketa, Arizkunenean. 18:00etatik 21:00etara.

#### DONEZTEBE

**Martxoaren 30etik apirilaren 15era,** Margo erakusketa, erakusketa aretoan. Goizez: 11:00-13:30; arratsaldez: 17:00-20:00.

## TELEBISTAKO TXOKOA






BADATOR KORRIKA 15 ESKUALDERA

# Euskararen alde korrika Ttipi-Ttapa Telebistan

Hasia da dagoeneko korrikaren 15. edizioa. AEKk bi urtetik behin antolatzen duen ekitaldia da korrika, Euskal Herri osoko errepideetan egiten den eta milaka eta milaka euskaltzale mugiarazten dituen ekitaldia. Nola ez, gure eskualdera ere etorriko da, hurrengo egunetan, gainera. Zonaldean Baztanen dugu lehenbiziko hitzordua, martxoaren 30ean, eguerdian. Ondotik etorriko dira, Senpere eta inguruak, larunbat goizean. Eta gau partean, berriz, Bortzirietara ailegatuko da. Etxalar, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Saldias... Iruñeko bidean. Eskualdean pasatuko denez, aitzineko alditan bezala, Ttipi-Ttapa Telebistako lankideek ez dute hutsik eginen eta korrika 15eko irudiak hartuko dituzte, Bortzirietatik Malerreka bitartekoak. Lekukoa eskutik eskura nola pasatzen den ikusi ahal izanen dugu, beraz, Ttipi-Ttapa Telebistan. Ea jende andana ikusten dugu gure telebistan euskararen alde lasterka.

#### KONTU-KONTARI SAIOKO DVD ETA BIDEOAK SALGAI

Ttipi-Ttapa Telebistak garai bateko kontuak biltzen dituen *Kontu-kontari* saioko DVDak salgai ditu. Interesatuek 948-635458ra deitu behar dute.

## DISKAK




*Gauaren helduan*

**IMUNTZO ETA BELOKI**

*ELKAR, 2007*

Imuntzo eta Beloki bikotearen seigarren disko hau, aitzinekoaren eredu bikaina da. Kantu alaiak, freskoak, dantzagarriak eta baikorrak, tradizioari loturiko doinuak, kopla eta kantu herrikoien errekuperazioa, gure paisaje zein naturari buruzko irudikapen zoragarriak, hala nola gure oroimenean eskegitzen diren iparraldeko melodia gozo bezain nostalgikoak, ofizio zein sena handiz nahasten ditu berean, tradizioa eta modernitatearen arteko oreka egonkorra lortuz eta sentsazio bizigarrien aldeko apostu argia eginez. Hamairu kantutan, *Gauaren helduan* disko honek harrapatu egiten gaitu besta koloretsuaren sarean eta eskutik hartuta ametsetako dantza helduaren gune zirraragarri horretarantz eramaten gaitu, gure gogoan betiko iraunerazteko.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Martxoaren 9tik martxoaren 16ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 41,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,065 € kiloa. (=)

**Zerramak:**
0,490 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,95 (=)
**1.koa** 3,70 (=)
**2.koa** 3,50 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,07 (=)
**1.koa** 3,82 (=)
**2.koa** 3,59 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 190,00 (-20,00)
idixkoak 288,00 (-7,50)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 150,00 (-20,00)
idixkoak 180,00 (-7,50)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,30/6,00
8-10 kilokoak: 4,30 /5,00

## JAKIN BEHARREKOAK

# Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak urratuak direla dio Behatokiak

### Urraketetan Euskararen Telefonoa erabiltzeko deia egin du

Kontsumitzaileen nazioarteko eguna izan zen martxoaren 15ean eta horren harira, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunon hizkuntza-eskubideak gogoratu zituen. Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideez arduratzen den fundazioa da eta berriki Euskal Herri txosten berezitua argitaratu zuen gai honen inguruan: «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz-eskubideak Euskal Herrian».

Aipatu txostenean Behatokiak Europa Kontseiluko, Europako Batasuneko, estatu espainiar eta frantziarreko eta autonomia-erkidegoetako araudiak aztertu ditu. Horren arabera, «*gure hizkuntza-eskubideak urratzea merkea da*». Gaineratu dutenez, «*kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunoi bizi garen lurraldearen arabera hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkigun arren, horien urraketak Euskal Herri osoan gertatzen dira*».




**Euskara erabiltzeko eskubideak urratuak diren kasuetan kexaren berri emateko eskatu du Behatokiak.**

Azterketaren gibelean, urterik urte kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunek egin dituzten erreklamazioak daude: «*gero eta kexa ugariago bidali izanak egoerari buruzko azterketa berezitua egitea ekarri du*».

Horretarako Euskararen Telefonoa deritzon doaneko zerbitzua abian paratu zuen Behatokiak. Hain zuzen, hizkuntz-eskubideen urraketei konponbidea emateko «*tresna zuzen eta eraginkorra*». Euskal Herriko edozein herritarren eta elkartearen eskura jarri zuen. Izan ere, Behatokiaren hitzetan, «*ez dago kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskubideez hitz egiterik, hizkuntz-eskubideen bermerako mekanismo eraginkorrak abian jartzen ez badira*».

Azken azterketako datuak aztertu ondotik, Behatokiak Euskararen Telefonoa zerbitzua erabiltzeko deia egin du berriro. Euskara erabiltzeko eskubidea errespetatu ez den kasuetan edo euskara erabiltzeagatik kaltetua izanez gero 902 194332 zein 0559594949 telefonoetara deitzeko eskatu du, edo *www.euskararentelefonoa.com* webgunea erabiltzeko.

## LIBURUAK



*Sua falta zaigu*
**Katixa AGIRRE**
*ELKAR, 2007*

Lehenengo zigarrotik lehenbiziko ezkontzara, aurreneko desilusiotik zaputzaldian instalatzera, intentsitate bereziz jantzitako zazpi istorio ehundu ditu Katixa Agirrek bere estreinako narrazio-bilduma honetan, gaztaro mitifikatuaren muga lanbrotsuak heldutasun harrigarriz marraztuz. Ipuin bakoitzak kokaleku bat du: «*batzuk Euskal Herrian girotuak daude, bertze bat Eskozian, bertze bat Pennsylvanian...*». Eta ipuin horietako bakoitzan ageri diren pertsonaiak anitzak dira: «*Neska gazte bi dira ipuin bateko pertsonaia nagusiak, gizon heldu bat azalzen da bertze batean... Baina muinean ipuin guztiek dute sentimendu berbera: Insatisfakzioa, zerbait falta zaigun sentipena*». Pertsonaiek kontra eginen diote sentipen horri, bakoitzak bere moduan: «*Gazteak, adibidez, errebeldeago agertuko dira; eta zaharrak, beharbada, apatikoago*».

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Apirilaren 1ean** Aiako Harrira mendi ateraldia, Ulibeltzak mendi taldeak antolatua. 07:30ean Itturburu ostatuan autobusa.
**Apirilaren 5ean** Hiru Erregen Mahaiara.

**BAZTAN**

**Apirilaren 1ean** Xaguzelaira ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak.

**ZUGARRAMURDI**

**Apirilaren 8an** Hondarribi-Pasaia ateraldia antolatu du Atxuria mendi taldeak.

### KONTZERTUAK

**ELIZONDO**

**Martxoaren 31n**, Banda Del Palo taldearen kontzertua Lur dantzalekua, 00:30ean. Sarrera: 8 euro.

**ELIZONDO**

**Martxoaren 30ean**, Kabul eta Kalapiteren kontzertua Gaztetxean.

### IPUIN KONTALARIAK

**BERA**

**Martxoaren 30ean**, 4-7 urte bitarteko haurrentzako ipuin kontalaria, Maite Francoren eskutik, 18:00etan.

### ZINEMA

**ETXALAR**

**Martxoaren 30ean**, «Pipi Galtzaluze» filma kultur etxean, 16:30ean.

### AUTO IGOERA

**ETXALAR**

**Apirilaren 1ean,** Usategietako Auto Igoera. 9:30ean itxiko da errepidea, 10:30ean probako lehen itzulia eta ondotik saio puntuagarriak.




**LEKAROZ.** Jatetxe batean lagun bat behar da egunero lan egiteko. ☎ 619 829289 (Amaia).

**BERA.** Emakumea edo neska behar da 4 eta 6 urteko bi haur zaintzeko, astearte-tik ortziralera, arratsaldez. ☎ 609 708797.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Gas gas trialeko motoa** salgai, 250 cc, 2004koa eta matrikulatua. ☎ 647 588844.

**Patrol GR** salgai, NA-AJ matrikula. Hagitz egoera onean eta prezio ezin hobean. ☎ 629 761865.

**Seat Ibiza** salgai, 2004ko uztailekoa, 3 atekoa. 1,9 TDI eta 100 zaldi. Prezioa adostuko da. ☎ 647 925467.

**Scooter Honda Spacy** salgai, 125 cc-koa, 4 denbora, 98ko irailekoa, 20.000 km. Egoera onean eta ekonomikoa. ☎ 686 736403.

**Renault Clio 1.9** diesela algai, 5 ate, 90.000 km, 8 urtekoa. Egoera oso onean. ☎ 636 721369.

**Ibilgailuentzako remolkea** salgai, metro bat zabal eta 1,40 metro luze. ☎ 618 962863.

**Audi 80** salgai, 1.9 TDI, gasoilezkoa. Egoera onean. ☎ 687 544646.

**Volkswagen Transporter** furgoneta salgai, 2002koa, 2.5 TDI, 8 plazakoa. ☎ 620 749384.

**Quad Yamaha Banshee** salgai, 350 cc, 2002koa, extra ugarirekin. Hagitz gutti erabilia, egoera hagitz onean. ☎ 687 052867.

**Golf TDI** 115 CV salgai, 6 urtekoa eta 120.000 kilometro. Klimatizadorea, aluminiozko llantak, ordenagailua... ☎ 680 343337.

**Renault Modus** autoa salgai, 3 urte egin beharrak. 55.000 km. ☎ 690 385181 (21:00etatik aitzinera).

**TALLERES SANTESTEBAN**
948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)**
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.
**BIGARREN ESKUKOAK**
Opel Astra 2.0, Laguna Grand Tour 2.2 DCI, Kangoo 1.9 D 2001koa (gibeleko aldea itxia), Scenic 1.5 Dci, Laguna 2.2 DCI 150 CV, Clio Alize 1.2 60 CV, Peougeot 206 1.9 D 70 CV, Citroen C5 2.0 HDI.

## MOTORRA
### 502 Tailerrak

**MENDAUR MOTOR**
948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa eta Renault Laguna.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK
### 601 Emateko

**Txakurkumea** oparitzen du. ☎ 637 990197.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Bi ahari mutur gorriak** salgai, adarrekin eta hiru urtekoak. ☎ 948 451504.

**ETXALAR.** 20 erle saltzeko, Perfeccion. ☎ 948 635174.

**20 ardiren eskubideak** salgai. ☎ 948 634170.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Logela** salgai, 1,05 metroko ohea, koltxoia eta somierrarekin, gau-mahaia eta idaz-mahaia bere apalarekin, gaztainarekin egina. ☎ 948 450950.

**Sime markako kaldera** salgai. ☎ 620 245203 (goizez)

**Yamaha markako bozgorailua** salgai. ☎ 699 122815. (20:00etatik aitzinera).

## HARREMANAK
### 801 Agurrak

**Ainara Amoros** aranztarrak 23 urte beteko ditu apirilaren 1ean. Aunitz urtez eta muxuk gure erizainari kuadrilkun partetik.



# urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.net



Zorionak Pottoko, martxoaren 24an 4 urte bete dituzu. Muxu hadi bat masail polit horietan, familia guziaren partetik.



Irungo Mirari Etxeberria Zubialdek 5 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak Irungo eta Zubietako familien partetik eta segi beti bezain saltsera.



Irungo Mirari Etxeberria Zubialdek 5 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak Xune, Unai, Aimar eta Joneren partetik eta muxu potolo bat.



Aizea Aioroa Apeztegia ittundarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 6an. 5 muxu haundi «sorgina» Ainara eta Ekiñeren partetik.



Zorionak Ainhoari martxoaren 30ean 5 urte beteko ditueIako. Ongi pasa eguna eta zorionak atta, ama eta Unairen partetik



Arantxa eta Maialen Larrañaga Cuevas beratarrek 7 urte bete dituzte martxoaren 13an. Pozpozik bizi Marisorginak! Besarkada bat Josetxo, Arantxa eta Maddiren partetik.



Zorionak Emilio eta Ainhoari. Aitatxi-bilobak martxoaren 22 eta 30ean urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Aurtizko Xabier Goizueta Baleztenak 3 urte beteko ditu apirilaren 9an. Muxu haundi bat Ekiñeren partetik.



Xabier Goizueta Baleztena aurtiztarrak apirilaren 9an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Urrozko Jon mazizior Jaurena alias «Mazi Txikik», 13 urte bete ditu martxoaren 28an. Zorionak Lesakako «La mula»ren partetik. Ongi pasa Jon!



Berako txirrindulari morroskoenari mila muxu 7 urte beteko dituelako martxoaren 30ean. Zorionak Ainara, Katti eta gurasoen partetik.



Sara Latorre Goia beratarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak etxekoen partetik.



Irune eta Itsaso Elizagoien Bizente etxalartarrek 14 eta 12 urte beteko dituzte martxoaren 29an eta apirilaren 4an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Ainara Otxoteko Larrarte lesakarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat Aimarren partetik.



Janire Martin Goia lesakarrak 7 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak Naiararen partetik. Muxu haundi bat.



Xabier Urrutia Telletxeak 5 urte beteko ditu martxoaren 29an. Aunitz urtez Eider, atta, ama eta Elordiko familiaren partetik.



Zorionak Sukaldari. Eskerrik asko bazkari paregabea prestatzeagatik. Orain txanpainaren zai nago. Aupa Belarra jatetxea!



Asier Telletxea Apeztegia beratarrak 5 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki Andoniren partetik.



Ane Pacheco San Julianek apirilaren 2an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat attatto, ama eta Ainararen partetik. Zorionak printzesa!



Ittungo Haizea Aioroari zorionak 5 urte beteko dituelako apirilaren 6an. Segi beti bezain alaia eta sorgina. Muxu bat aita, ama, Hodei eta Aitzen partetik.



Manex igantziarrak urtea bete du martxoaren 14an. Zorionak gure ttottolo eta muxu pila-pila...



Olatz Etxepare ElRio beratarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak Jone, Izaro eta familia. Muxu haundia gure klarinetistarentzat!!!



Naiara eta Izaro Larroke Alzuartek 8 eta urtea bete dituzte martxoaren 12an. Muxuak attatto eta amatxoren partetik gure bi polittari.



Harri Maritorena Tapiak 9 urte beteko ditu martxoaren 28an. Aunitz urtez eta zorte on egun horretako futbol partiduan.



Zubietako Ane Ansok apirilaren 9an 9 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Prestatu gominola batzuk!



Rosa Marik eta Jose Luisek martxoaren 27an 25 urte bete dituzte ezkondurik. Egun ona pasa!



Carolinak 90 urte eginen ditu apirilaren 1ean. Zorionak eta egun ona pasa!



Zorionak Daniel eta Erik Garziari apirilaren 6an eta 29an 13 eta 3 urte beteko dituztelako. Doneztebeko eta Eratsungo familiaren partetik, eta bereziki anaia Eloy eta lehengusina Zhaliaren partetik mila muxu eta ongi pasa.



Jonan Migelena Mariezkurrena igantziarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat Ezkurrako Mikel eta Aingeruren partetik.



Igantziko Jonan Migelena Mariezkurrenak 2 urte eginen ditu martxoaren 31n. Zorionak Eratsungo eta Igantziko familia guztiaren partetik.



Aurtizko Ekiñe Mindegia Baleztenak apirilaren 2an 9 urte beteko ditu. Etxeko printzesari muxu haundi haundi bat familiaren partetik. Ongi pasa eguna.



Zorionak printzesa! Ekiñek 3 urte beteko ditu apirilaren 1ean eta muxu aunitz familia guztiaren partetik.



Felix Bergara Elizondo aranztarrak 62 urte beteko ditu apirilaren 2an. Aunitz urtez lagun baten partetik.



Apirilaren 1ean Ekiñe gure neska mordoxkak 3 urte beteko ditu. Muxuak gurasoen eta bereziki Julene ahizparen partetik.



Apirilaren 1ean Ekiñek 3 urte eginen ditu. Zorionak eta meriendaren zain gelditzen gara. Muxu aunitz lehengusinen partetik.



Doneztebeko Xabi Bengoetxea Rekartek martxoaren 27an 7 urte bete ditu. Zorionak eta 7 muxu haundi familiaren partetik. Aupa futbolari!



Zubietako Julen Santestebanek 5 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Karmele eta Endikaren partetik. Muxu bat bihurri



Zubietako bi lehengusu bihurrienei zorionak. Julenek 5 urte bete ditu martxoaren 12an eta Enekok 14 urte beteko ditu martxoaren 29an. Zorionak zuen familiaren partetik.



Ugaitz Larraldeibarra beratarrak apirilaren 4an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez etxekoen partetik.



Gure Iraia ipotxari, Ekhiñe pottoki eta familiaren partetik zorionak eta bi muxu haundi.

## urtebetetzeak



**Lorea Maia Santesteban.** Apirilaren 19an 2 urte beteko ditu Iruñeko sorginak. Zorionak eta muxu haundi bat Markus eta Ixabelen partetik.



**Lorea Maia Santesteban** gure prinxexak, 2 urte beteko ditu apirilaren 19an. Zorionak polita zure amatxi eta atautxiren partetik. Muxu haundi bat.



Aunitz urtez sorgina!! **Ane Fagoagak** 7 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak zure familiaren partetik.



**Ibon Irazokik** apirilaren 18an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Lesakako atatxi, amatxi, Felix, Mattin, Valle, Odei eta attaren partetik.



**Andoni Eugi Mendizabalek** apirilaren 1ean, 2 urte beteko ditu. Zorionak gure ttuttuxeri Lesakako atatxi, amatxi, Juanjo eta Odeiren partetik. Muxuak.



**Andoni Eugik** 2 urte beteko ditu apirilaren 1ean eta **Ibon Irazokik** 8 urte eginen ditu apirilaren 18an. Zorionak biei eta bi muxu haundi Lesakako familiaren partetik.



Doneztebeko **Miguel Ostizek** apirilaren 3an 15 urte beteko ditu. Koxkor biltzaile onenari, Beñat eta Intza lehengusuen partetik, zorionak txapeldun!



**Andoni Mindegia Etxepare** aurtiztarrak apirilaren 2an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat ama, atta eta Janireren partetik.



Zubietako **Mikele Etxekoloneak** 7 urte beteko ditu apirilaren 9an. gure panderojoleari 7 muxu haundi atta, ama, Beñat eta Malenen partetik.



**Joxe Iturzaeta** gure attonak urteak beteko ditu apirilaren 15ean. Aunitz urtez Olatz, Antton eta "Kokoren" partetik.



**Beñat Iparraguirre Olasagasti** etxalartarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Aurtizko **Andoni Mindegiak** apirilaren 2an 8 urte beteo ditu. Aunitz urtez zure laguna Ekiñeren partetik.



Iruritako **Luis mik** urteak beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak familiaren partetik. Ongi pasa, muxu.



**Virginia Goienetxe Gonzalez** lesakarrak 7 urte eginen ditu apirilaren 3an. Muxu aunitz ama, atta eta Nataliaren partetik. Zorionak.



**Fermintxo Gartxitorena.** 40 urte eta oraindik haur izan nahi? Buxuri muxu bat Beñat eta Intzan partetik



**Fermintxo Gartxitorena.** Beti umoretsu dagoen irrati esatari alaitsuenari, Ttipi-ttaperoen partetik muxu haundi bat.



www.lurelizondo.com

# Lurr

martxoak**31**

## BANDDELPALO

Band Del Palo

**00:30 8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

apirilak**5**

## LURDJOTAK

**01:00 8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

apirilak**7**

## BARONROJO

**00:30** 12€ aurretik **15€ takillan**

apirilak**14**

## LURDJOTAK

**01:00 8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

apirilak**21**

**BAZTANGO TALDEEN KONTZERTUA:**

## UFESTUEK, EK04, KASKEZUR...

**20:00 5€ 01:00**etatik aurrera **8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte




## ZOZKETA

"Ibiza" baten zozketa. Eskura itzazu zure boletoak 3:00ak baino lehen iristean. Astebururo zure sarrerakin batera.

Elizondo(Nafarroa)

(*)Zozketa: maiatzaren 12an 2:30etan